

Bediako Kolazino Mendi Egunerako izena emoteko epea zabalik

10. orrialdea

Unai Silba eta Urdax Moreno Desert Trophy Panda Raidera

Rallyan parte hartzeako autoa igaz erosi eben arren, aurten joango dira lehenengoz Marokoko basamortutik doan rallyra. Hori dala eta urtailaren 19an kotxearen aurkezpena egin eben Lemoan. Desert Trophy Panda Raida hilaren 16tik 24ra bitartean izango da. **11. orrialdea**



Arratia posta txartelean erakusketea inauguratzen da zezeilaren 1ean

13. orrialdea

TOKIKOM

begitu
arratia ubide zeberio

311

2019ko zezeilaren 1a
hamabostekaria
www.begitu.org

Lana, enplegua eta bizimodu duinaren aldeko beharra Arratian



Euskadiko langabezia tasa %9,58 eta Bizkaikoa %11,5 ziran 2018ko amaieran. Arratia, Ubide eta Zeberioko batez bestekoa %8,5.

Langabeziak behera egin dau 2018an. Euskadi eta Bizkaiko datuak INEk emon ebazan urtailaren 29an; Arratia Ubide eta Zeberioko batzbestekoa Lanbideren herriz herriko datuak dago kalkulata. Baina datuok baino harago, jentearen bizi kalidadeak hobera egin dauan ala ez dauka garrantzarik handiena. Izan be, lana beharrezkoa da bizimodu duina izateko, baina lana kalidadezkoa

izan behar da. Prekarizazioak, lanaldi partzialeko kontratuak eta soldaten jeitsierak beharra eukita be egoera ekonomiko larriak bizi izatea ahalbidetu dabe eta.

Enplegua eta lana ez dira gauza bera. Kobrau bako lanak be sano ekarpen garrantzitsua egiten deusie ekonomiari. Pensionistak eta andrak egiten dabe batez be lan hori. Arratiakoak pensino eta biziaren duinen aldeko burrukan jarraituten dabe. **8. eta 9. orrialdeak**

Makilak eskuan santaeskean

Aurten be, tradizioak agindutako moduan, Arratiako auzune eta herrietako kaleak koruz beteko dira Santa Ageda bezperan koplak kantetako.



Asterria auzokoak kantuan.

Argazkia: Oriol Fernandez.

Arratia osoan, inguruko herrietan eta Bilbon, Arratiako Koruak Santa Agedako koplak zaharrak kantatuko ditu egun osoan zehar. Herrietan eta auzuneetan be era guztietako koruak, tradizio handikoak batzuk, barriagoak beste batzuk, euren errepertorioa eskainiko dabe kaleko jentea batzean dauan ekintza honetan. Eskola umeak, parokietako koruak, lagun taldeak, alkar-teetakoak... koplak zaharrak bizirik mantentzen eta merienda baterako edo kausa solidarioren baterako jasoko dabe dirua. **7. orrialdea**

AREATZA/DIMA

Areatzak eta Dimak 2019rako aurrekontuak onartu dabez

Areatzan Eraiki proiektuagaz jarraituko dabe eta HAPOrri hasikerea emongo deusie. Diman, herriko plazea oinezkoentzako egiteko, Landaburu kaleko lanak amaituko ditue eta Oba auzuneko saneamentuaren bigarren faserako izango da diru partidarik handiena.

Bai Areatzan bai Diman aurrekontuak EH Bilduren aldeko botoakaz eta EAJ-PNVren kontrakoakaz onartu ziran. **6. eta 7. orrialdeak**

ARRATIA

Dylan Inglis, euskalkien erabilera aztertuten dauan ingelesa

Dylan Inglis, Durham unibersidadeko Geografia ikaslea euskalki biren erabilera aztertzen dago, Zuberoakoa eta Bizkaiko euskerearen Arratiako berbakerea. Hori dala-eta Arratian egon zan lau egunez eta beragaz berba egiteko aukerea izan eban BEGITUk.

Inglisen ama historialaria da eta Inkisizioaren gaineko liburu bat idazten egoanean Nafarroara etorri zan familia. Han, euskerea ezetu eta urte batzuetara ikasten hasi zan Dylan. Arratierea, euskera batua eta gaztelania noz eta zelan erabiltzen daben arratiarrak, eta frantsesa, zuberera eta euskera batua zelan erabiltzen daben zuberotarrak aztertuten dabil oin. **5. orrialdea**

publizitatea
94 631 73 14 eta 649 979 115



www.begitu.org

**Gugaz harremanetan ipinteko
94 631 73 14 eta 649 979 112
begitu@topagunea.com**

Literatura txokoa

MALKOAK LUR ANTZUAN

Extremaduran XX. mendeko 30 hamarkadako urteetan gagoz. Badajozeko herri txiki baten Damaso bizi da, miseria gorrian bizi dan nekazaria. Eskualdeko lurra jauntxoak dira eta herriko jentea goseak hiltzen dagoan bitartean, 1936ko gerrak irauliko dau Damasoren bizitza, iges egin beharko dau-eta. Bitarte honetan, Jacinta, Valle eta Eusebiak, familiako andrak, errepresioa, biolentzia eta bortxa jasango dabe bere gordintasunean, eta derrigortuak egongo dira ahal daben moduan euren bizimodua aurrera ateraten.

Damaso bere igesaldian Badajozeko uriburura helduko da frankistak sartu barri diranean, gau bakar baten 4000 persona fusilau

ebezan, hobi komunean lurperatze lanetan ipiniko dabe Damaso, familia osoak lurperatu behar izan ebazan. Historia liburuetan nekez argitaratuko dan historia kontetan da, ahaztu behar ez dan iragana.

Kontakizunak hogeta hamar urte aurrera eginda, Toti Martinez de Lezeak migrazioaren eta langileen buruketan murgilduko gaitu, Bizkaiko fabrika baten lanean dagoan Damasoren semeetako bat, Manuel aurkeztuko deusku. Urte hareetan, 1966-67; Etxebarri gertatu zan frankismo sasoiko grebarik handiena; Laminaciones de bandas en frio enpresako langileak egin eben greba historiko ha, 163 egunetz luzatu zana. Bizkaiko hainbat eleizatan grebalariak ia

egunero egiten ebezan batzarrak; ezkutuan egin eta zabaltzen ebezan panfletoak, abadeen laguntzaz. Greba 1967an amaitu zan, Bizkaian Francok salbuespen egoerea agindu eta hilabetera. Jazarpen, tortura, atxiloketa eta deserriratzeko garaia zan, eta, Manuel burruka horretan buru belarri sartuta egongo danez, Extremadurara deserriratu dabe. Holan jakingo dau zer gertatu zan bere gurasoakaz eta gainerako senideakaz. Han topauko dau bere familiaren hari galdua: migratzera behartu eutsan haria.

Martinez de Lezeak eleberri honetan, jente xumearen bizitza deskribiduten dau. Era arin baten idatzita dago, irakurteraza da, eleberri hurbila, "historia txikiak" osotutakoa. Orduko sasoiko gure inguruko edozein familiaren historia izan leike, ezetu beharreko kontakizuna. Zorritzarekin historia behin eta barriz errepetidu egiten da. Kontakizunak ez dagiela lur antzuan amaitu.

Karmele Beobide Urigoitia

Toti Martinez de Lezea

Itzultzailea: Miren Arratibel

Malkoak lur antzuan

Erein argitaletxea

294 orrialde



TELEFONO INTERESGARRIAK

Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
SOS DEIAK 112

Guardiako Farmaziak

09:00etatik 22:00etara

Urtailaren 28tik zezeilaren 3ra

Goikoetxea. Dima. Ugarana 33
Tel.: 94 673 70 54 eta 619 524 057

22:00etatik 09:00etara

Cutierrez. Amorebieta-Etxano.

Zezeilaren 4tik 10era

Rodriguez Martinez. Igorre. Agirre Lehendakaria 27
Tel.: 94 673 61 09 eta 688 635 154

22:00etatik 09:00etara

Guarrobena. Amorebieta-Etxano.

Zezeilaren 11tik 17ra

Traver. Bedia. J.A. Agirrerren enparantza z/g
Tel.: 94 631 39 50 eta 649 686 305

22:00etatik 09:00etara

Goiria Montoya. Amorebieta-Etxano.
Zeberioako ez dau guardiarik egiten.

Urte osoan

22:00etatik 09:00etara

Gometza Ana. Francisco Kortabarria 2. Basauri.

Medikuak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 11

Areatza: 94 631 71 52

Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 680 19 74

Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16

Ubide: 945 38 50 14

Zeanuri: 94 673 91 49

Zeberio: 94 648 20 79

Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 05

Areatza: 94 673 90 10

Bedia: 94 631 42 00

Dima: 94 631 57 25

Igorre: 94 631 53 84

Lemoa: 94 631 30 05

Ubide: 945 45 03 22

Zeanuri: 94 673 91 46

Zeberio: 94 648 10 79

Udalen Mankomunitatea

94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15

Gorbeialde

94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01

Parketxea 94 673 92 79

Igorreko Kultur Etxea

94 673 62 51

Gorbeialde Irratia

94 631 52 90

Euskotren 902 543 210

Areatzako Notarioritza

94 673 92 26

Bizkaibus 94 612 55 55

Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegunetan: Lehenengoa 05:00etan.

Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan.

Zapatuetan: Lehenengoa 05:00etan.

Orduro: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro.

Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik 22:30etara 30 minuturo, azkenengoa 22:15ean Galdakaoraino.

Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30 minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean Galdakaoraino.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango

Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era 30 minuturo.

Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30 minuturo.

Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo

Ubidetik urteerak, lanegun eta zapatuetan: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Otxandiotik urtekerak: Lanegun eta

zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Lanegun, zapatu eta jaiegunetan,

Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Zeanuri-Lemoa-Bilbo

(Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik 21:15era orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Bilbo-Lemoa-Zeanuri

(Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Zeberio-Ugao

Lanegun eta zapatuetan:

Zeberiotik: 7:00, 08:20, 09:10*, 11:00, 11:45*, 14:10, 15:00, 16:10, 18:30*, 20:20.

* Basauriraino (Ariz) heltzean da.

Gainontzekoak Ugaoraino. Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Ugao-Zeberio

Lanegun eta zapatuetan:

Ugaotik: 8:40, 10:20, 11:20, 14:30, 16:30, 19:40.

Basauritik (Ariz): 10:00, 19:20. Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Artea-Zeberio-Ugao

Lanegun eta zapatuetan: 6:50, 8:00*, 14:00,

16:00.

* Igorretik urtetan da bost minutu lehenago.

Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Ugao-Zeberio-Artea

Lanegun eta zapatuetan:

Ugaotik: 7:20*, 13:05, 15:30, 20:40.

Basauritik (Ariz): 12:45.

* Igorreko Instituturaino heltzean dira.

Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Ermibarri-Arriorriaga

Jaiegunetan: 8:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.

Arriorriaga-Ermibarri

Jaiegunetan: 10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

La Union 94 427 11 11

Bilbo-Gasteiz

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan dau eta Otxandioakoak 16:00etan.

Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta 16:30ean urtetan dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan dau eta Otxandioakoak 18:30ean.

Gasteiz-Bilbo

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta 16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta Otxandioakoak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandioakoak 10:30ean urtetan dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan dau Gasteizetik. Otxandiokorik ez dago.

Babesleak:



Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA



Argitaratzailea: ZERTU Kultur Elkartea.

Helbidea: Herriko Plaza 24, 48142 Artea.

Telefonoa: 94 631 73 14.

Helbide elektronikoa: begitu@topagunea.com

Webgunea: www.begitu.org

Zuzendaria: Iñigo Iruarizaga.

Erredakzino burua: Beatriz Azpiri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.

Erredakzino taldea: Raket Aldekoa Diez.

Maketazino: Beatriz Azpiri eta Iñigo Iruarizaga.

Publizidadea: Iñigo Iruarizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.

Banaketeta: Laiene Pagazaurtundua (Arantzazu, Artea eta Ubide), Ibai Milikua (Areatza), Unai Agorreta eta Xabier Beitia (Bedia eta Lemoa), Amaia Uriarte (Dima), Oriol Fernandez eta Iker Perez (Igorre), Iratxe Arribas (Zeanuri), eta Berbizkunde Arroita (Zeberio).

Tiradea: 7.300 ale.

Inprimategia: Iparragirre Editoriala.

ZEURE BERBEA

Zeure Berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazoteko lekua. Bialdu zuen kezak, eskertronak, hausnarketak, burutazioak edota ideak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleai zuen ikuspuntua helarazoteko. Argitaratutako derrigorrezkoa da izen osoa, NA-ren zenbakia eta herria emotea.

Zeure Berbea hamar herritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz. Hauxe helbidea:

Zertu Kultur Elkarte
BEGITU aldizkaria
Herriko Plaza 24
48142 Artea

Edo, helbide elektronikoa honetara bialdu zure gutunak:
begitu@topagunea.com


BEGITU ALDIZKARIA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITU eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkarte, Herriko plaza, 24. 48142 Artea edo begitu@topagunea.com helbidera.

GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

Alkar



Alkar berbea, arkal esanda be bai, izenordaina da. Batak besteari edo gehiagori egindako ekintza (alkarrekikotasuna) adierazoteko erabilten da (álkar, árkal, ahoskatuta). Batuan, elkar da. Honako esaeretan ikusi geinke erabilera: "alkar topeka eta arkal jan", burrukan; "arkal konpondu", hartu-emonetan; "alkarren antzera, alkarren ondoan"; eta "alkar-poderoso" esakunea, Bizkaiko Foru-Zuzenbide arloan, andra-gizonek batak besteari ondasunetan aginpide bardina emoten deusanean. Amaituteko, argazkiagaz lotutako adibidea: "biok arkalegaz hobeto konponduko gara".

ERETXIA

Zuritik baltzera, horia

Zuria eta baltza, kontrapuntu klasikoa. Klasikoa eta gaurkotasan handikoa, multzo batean edo bestean egon aldeak nabarmenak izaten dira kasu askotan. Egunotan hori argi ikusten gabilz. Alde batean zulo baltzean jausitako ume zuriaren zoritxarreko heriotzea, eta bestean apar zuridun itsaso ase-ezinean hildako ume baltzen tragedia. Laguntzarako baliabide guztiak batean, ikusezintasunik handiena bestean. Zoritxarreko gertaerea Malaga aldekoa, umea jaustea zabalera txikiko baina sakonera itzeleko zuloan behera. Foko, indar eta ahalegin guztiak bideratu dira berari laguntzera lehenengo unetik, izan behar dauan moduan. Egun gitxitan ingeniariak lan ikaragarria egin da bertatik aterateko: makinaria espezializaua etenik bako lanean eta jente aditua guztia zuzentzen zein beharrean, diruari begiratu bako jarduna, bizitzeak diruak baino gehiago balio daualako (balio beharko leukelako). Hedabideen fokoak bertan, gauegun, barriemoile bereziak bialduz: lanean dabilzaren jarduna goraitatuz, jarraitzera animauz, jentearen alkartasuna sustatuz, zirkinik txikienaren barri emonaz (ez beti modurik egokien). Beste aldean ume baltzak apar zuridun itsaso ilunean itota, laguntza eta foko barik, ikusiezin bihurtuz, lagundu gura dabenai etenik bako trabak ipiniz, bizitzak salbatzea bera delitu bihurtuz. Imaginetan dozue migratzaile ontziren bat hondoratzean dan bakotxean Malagan eratu dan bezalako operatiboa antolatzea eurei laguntzeko? Ederra izango litzateke. Langile aditu eta kualifikauak bizimodu duinaren bila datozenak heriotzearen hartzaparetatik ateraten, erakunde eta politikariak guztiz inplikautu personon ongizatean, hedabideen fokoak bertan: erreskateen barri emonaz, migratzaileok bide arriskutsuok hartzeako daukiezan errazoiak argi azalduz, koloreen



JAVI ONAINDIA
Kazetaria

gaintetik sufrimentu guztiak bardinak dirala erakutsiz, gizartean alkartasun uriola eraginez...

Asko imajinatzea da ezta? Mediterraneoan egoera latza da eta laguntasuna urria. Sufrimentutik igesi European itxaropenaren argi berdea ikusten dabenak gorriak eta bi pasetan ditue personak irunstea ohitura hartu dauan itsaso ase-ezinen zeharkaldian. Iluntasuna, hotza, bakardadea eta arriskua bidean. Ez dago eurentzako ingeniariak lanik, ez makina ez jenterik, eta hedabideentzat aspaldi galdu eben interesa. Malagan pasau danaren kontrara, lagundu gura dabenai trabak baino ez jakiez ipinten: itsasoan migratzaileak erreskatau ezker portuetan baimenak falta, eta bizitzak salbetako borondate osoz prestatutako ontziaz baimenak ukatu. Hor dagoz Aita Mari eta Open Arms portuan geldituta, itsasoan tragedia eguneroko ogia dan bitartean. Gobernu Kanpoko Erakunde eta aktibisten lana susmopean eta kriminalizautu, erreskateak egitea personon trafikoagaz lotuta. Hau itsasoko egoera, kontuan hartu barik zeharkaldiak hasi orduko eta amaitu ondorengo kalbarioak.

Sarri entzuten dogu gauzak ez doguzala zuri edo baltz ikusi behar, grisa be hortxe dagoala bien bitartean. Baina kasu honetan grisa ez, zuritik baltzerako zubilana horiak egiten dau: Ongi Etorri Errefuxiatuak plataformaren kolore bizi-bizikiak. Bizikiak salbetea, bizitza guztien balio bera eta guztientzako bizimodu duina defendiduz. Kolore desbardinatetako azalaren azpian danok daukagulako bihotz gorria, eta azalaren kolorearen gaintetik danok merezi dogulako duintasuna. Kanpoan ondo hartu gaitue behar izan dogunean, eta horrek gaur garana izaten lagundu deusku. Oin Harrera Herri bihurtzea toketan jaku: preminea daukanari lagunduz, daukaguna alkarbanatuz, mundu justuagoa eginez. Izan gaitzean abegikorak, badakigulako eta ahal dogulako. Zuri-baltzaren gaintetik horia.

BATZ 50 urte
BATZ, S. KOOP.
Torrea auzoa, 32
48.140 IGORRE (BIZKAIA)
IZAN GINAN...
...BAGARA ETA IZANGO GARA
Euskarabatz
MONDRAGON 2022

LUMATUTEN



GONTZAL MENDIBIL

Savoir faire

Gure ibilbideko eginkizunetan, moduak oso dira garrantzitsuak eta ezaguna eta esanguratsua dogun goiko frantsez izenburu hau, bizitzako edozein gai eta unetan dogu erabilgarria. Jakin badakigu bakotxaren izaera aldatzea ia ezinezkoa dana eta izakerak portaerea dakargula, baina gaitasunaz eta jarkera onez egiten diran gauzak frutu hobek emongo deuskuz beti be.

Puri-purian darabilgun eta bizkaitar guztiok maite dogun Athleticen presidente barriaren portaerea goraiatu gura neuke. Aitor Elizegiren egiteko moduak, ezaguera eta osagarri eder legez hartzean doguz gehienok. Itxura edo traza onak erakusten deuskuz eta oso txalotzekoa da bere oin arteko jokabidea.

Benetan erakargarria deritxat eta ez dago dudarik aurrekoagaz konparatuz, presidente barriaren esateko eta egiteko

moduak guztiz dirala desbardi-nak. Portaereak bereizten ditu personak eta balio askoren artean, alkarrizketaren aldekoa dala erakutsi deusku. Hemen ezugarrietako batzuk: Cabacasen auzia dala eta, haren gurasoai palkoan bere ondoan jartzeko gonbitea egitea edota Athleticen lagunarteakaz gauzak hobera joan daitezcan, aurrekoak eukan urruntasuna apurtu eta bereganatzea, batasun beharraren deiak zabaltzea...


Eta Athleticen filosofiaz zer esan, identidadearen bizkarrezurra dogula, lekukotasuna beti da jagon beharreko altxor preziadua. Azpimarkatu eta nabarmendu beharreko balore horreek babestu eta proiektu beharko geunke gure kulturaz batez be, ze askotan kanpoko edozer egintza, geurea baina hobea dalakoaren konplexioa be badaukagulakoan nago.

Eta anekdota legez zera kontauko deusket, sasoi baten, Zeanuri, Aitor Elizegiren bigarren bizilekua izan zala; ume eta gaztetxo denporan, haren familia hainbat urtetan neu jaio nintzan Arregia kalera etorten ziran astebururo eta oporretan eta Zeanuriko plazan ikusten genduan Aitor bere guraso eta anai-arrebakaz batera.

ZERTZEAN



IRANTZU LEKUE



BEGI TXINDORRA

Afrikako errinozero zuriak lez datza hilda kamino bazterrean haretx eder hau. Haretxa, eta are gitxiago ederra, izatea ez da nahikoa izan Diputazioak bialdutako furtiboak akabau ez eien. Ez da bakarria izan baina. Zientoka jausi dira hilda Zeanuri eta Kalajari basamortuko bazterretan. Errinozero zuriak adar afrodisiakoa ei dauka, eta Diputazioak be bai, itzelezko gogo afrodisiakoa dauka garapenari trabea egiten deuskan guztiari aurre egiteko. Plazera emoten dau. Gure segurtasunagaitik egin ei dabe, kamino ondoko hiru metroko sakonean dagoan guztia sarraskitu dabe. Holan ez dogu zugatz baten kontra joko. Segidu geinke mozkortuta, edo drogauta, gidatzen; segidu geinke neguko goizetan gure kaminoak izotz pistak bihurtzen diran horreetan abiadura biziz joaten. Lasai, ez dogu zugatz baten kontra talka egingo, honezkero ez. Baina, ni ezin izango naz Dean Martin izan, Montero zaharbarrituan lau bourbon edan eta nire deportibo gorriagaz Ipiñaburuko bihurtune baten zugatz baten kontra ez dot bizia galduko. Honezkero ez, ez dagoalako zugatzik. Kalajarin errinozero zuririk bez.

Alvaro Rabelli



Gorosti Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa
LORAZAINTZA
Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostisl.com

agoa Ortodontzia
hagin klinika
Implanteak
Estetika
Marina Urigoitia Aldekoa
Odontologia
Bidebarri 1, behea
48140 Igome-Bizkaia
T. 94 631 50 39
Kalegata Zerbaita 101
R.F.S. 21/06

ASESORIA Gorbeialde
Juridikoa · Fiskala · Lanekoa · Kontularitza
Askatasun 28, 1B 48143 Areatza
Tfnoa. 94 673 92 93 Faxa. 94 673 92 82
E-posta: gorbeialde@gorbeialde.com



ARRATIA

Dylan Inglis: "Txinan asko hobetu neban nire euskera maila"

Dylan Inglis, Durham unibersidadeko Geografia ikasleak euskalki biren erabilera aztertzen dago, Zuberokoa eta Bizkaikoa, hain zuzen be. Eta Bizkaikoaren kasuan, Arratiako berbakerea batez be. Martian, unibersidadean, *Hizkuntza eta gizartearen gaineko jardunaldietan*, euskalki bi honeen erabilerearen dinamikak aurkeztuten dauan berbaldia egingo dau.

Urtailean, Arratian egon zan Inglis. Arratiako berbakerea, euskera batua eta gaztelania zein testuingurutan erabilten dabezan arratiarrak zuzenean ikusten.

Erredakzinoa

Arratiako euskerearen gaineko ikerketa bat egiten zabilz?

Bai. Batua ikasten hasi nintzan eta maila jakin batera heldu nintzanean, euskalkien mundua zabaldu jatan. Lehen dana zan batua eta gero konturatu nintzan euskalkiak parra-parra erabilten dirala. Bizkaiera apurtxo bat ikasi neban eta gero zuberera.

Nire unibersidadeak emon eban argitara konferentzia bat egingo dala hizkuntza eta gizarte gai hartuta. Edozein hizkuntza izan leiteke: ingelesa, txinera... Orduan, nik pentsau neban, zer egin neike euskerearen inguruan? Ze, ni ez nago kualifikauta hizkuntza aztertzeko baina bai egoera aztertuteko; zelan erabilten dan ikertzeko. Zuberotan egon naz lau egun, eta gero he-

men Arratian, beste lauzpabost egun, komunitadearen dinamikak aztertzen. Hau da, hizkuntzeari jagokonez, Arratian, neurri handiago edo txikiago baten, euskera batua, gaztelera eta arratiara erabilten dira; eta Zuberotan, frantsesa, zuberotarra eta neurri txikiago baten, batua.

Sano desbardinak, ezta?

Zuberera euskalki oso bat da; oso uniforme, oso tinkoa da euskalki moduan. Bizkaiera barriz, ez: ia bailara bakotxean modu desbardinan egiten da. Gainera oso handia da Bizkaia eta uste dot bizkaiera euskalkirik erabiliena dala. Jente askok egiten dau. Hasikeran, Bermeo aztertutea pentsau neban, biztanle eta euskaldunen kopurugaitik. Zuberereak eta Bermeoko berbakereak erabiltzaile kopuru antzekoak ditue. Baina gero, bururatu jatan, Arratia herri bakar bat izan



Dylan Inglis Igorren egon zan Arratia Institutuan.

beharrean, herri batzuk dirala, berbakerea be, sano berezia daukala eta erabilera ez, baina ezagutza maila be oso antzekoa.

Antzekotasun batzuk be baditue zuberereak eta Arratiako berbakereak. Adibidez hitanoak leku bietan dauka presentzia. Eta badagoz berba batzuk hemen eta Zuberotan esaten diranak eta gaintzeko lekuetan ez. Holango bitxikeriak.

Zer dala-eta ebatzi zenduan euskera ikastea?

Oin dala lauzpabost urte sartu zan Euskal Herria nire munduan edo nire konzientzian. Ama or-

duan, liburu bat idazten egoan, historialaria da. Liburua, Euskal Herriko sorginen auzi batzuen gainean da, batez be Inkisizino garaia aztertuten dau. Hori dala eta, gurasoak, anaia eta laurok, hau da familian Iparraldera joan ginan behin, eta beste behin Nafarroara. Astebete egon ginan eta kultura ikusi genduan.

Niri sano interesgarria iruditu jatan, ze hur egon arren, hizkuntza eta kultura oso desbardinak dira.

Beraz interes hori biztu jatan eta handik bizpahiru urtetara, hizkuntza bat ikasi gura neban. Hainbat naukazan buruan eta

euskera aukeratu neban. Liburu txiki bat erosi neban eta gero batek esan eustan barnetegian oso azkar ikasten dala euskera eta Zornotzan egon nintzan bolada bitan, hilabete bi lehenengo, eta gero beste hilabete bat.

Harrezkerotik ikasten egon naz. Txinan, barbarako, asko hobetu neban neure euskera maila, euskaldun pare bategaz egon nintzalako Shangai-n, han Euskal Etxe bat dago-eta. Baina batez be asko irakurten nebalako eta oin be asko irakurten dot eta Mintzantegaz eta... astero saio pare bat egiten dot etxetik, Ingalaterratik, ikasitakoa manteniduteko.

Noz izango da berbaldia?

Martian. Zoritxarrez ingelesez izango da, Durham-eko unibersidadean dalako, baina akaso euskeratu egingo dot. Egindako azterketearen txostena irakurriko dot. Espero dot interesgarria izatea.

Jente askok eskatu deusta txostena. Hemengo jenteak, normala dan moduan, ez daki asko zubererari buruz. Eta Konferentzian neu izango naz euskerearen barri emoten bakarra. Lehenengotik, azaldu beharko dot euskera zer dan eta zerk egiten dauan berezi; gramatika eta beste gauza batzuk. Ingalaterran, frantsesa, gaztelania eta alemaniera ikasten dira, baina euskera ez, eta zeharo desbardina da. Espero dot guretzat interesgarriak diran gauza batzuk erakusteko gai izatea.

Eta ondoren zer? Aurrera begira euskera landuten jarraituteko asmoa daukazu?

Akaso bai. Nire karrerako amaierako lana izan leiteke proiektu honerri garapena emotea, era itxuroso eta handiago baten. Oin nire ikasketak ingelesez dira, baina horreek amaitutakoan, hemendik urtebetera edo, gurako neuke euskeraz zeozer egin. Donostian Antropologia egiten da, euskeraz eta gaztelaniaz. Horrek emongo leuskit aukera bikaina Euskal Herria hurretik ezetuteko.

ARRATIA

Beharginak kontratetako arazoenguruko hausnarketea egin eben enpresa foroaren bosgarren saioan

Erredakzinoa

Lemoako Lekun Caucho/Urakort ur-zorrotadaz ebagiteko ingeniarrizta enpresan, izan zan Arratiako enpresa foroaren bosgarren jardunaldia urtailaren 18an. Bertan Arratiako enpresa ugari batu ziran, Batz, Ormazabal y Cia., Ormazabal P&A, Cementos Le-

mona, Comecaran, Crono rent, Tresnak, Fertor eta Thyssenkrup, beste batzuen artean. Tamainu eta sektore desbardinatoko enpresak hartu eben parte foroan; automozinokoak, elektrikoak, zerbitzu sektorekoak... Berritzeguneko ordezkari bik be parte hartu eben.

Lekun Caucho/Urakorteko

langileak bertan garatzen dituen prozesuak azaldu eta gero, euren instalazinoak erakutsi eutseezan foroko beste partaidea. Enpresa barrutik ezetuteaz gainera, talde lana be egin eben saio honetan batutakoak. Enpresetan beharginak kontratetako arazoenguruko hausnarketea be egin eben.



Enpresa foroko bosgarren saioa hurreratutakoak.

ARRATIA

Euskal literaturearen azterketa feminista egingo dau Iratxe Retolazak Zeanurin

Erredakzioa

Arratiako Andren Jabekuntza Eskolearen programazino barruan, Iratxe Retolaza Gutierrez Euskal Herriko Unibertsitateko irakasleak *Begiradak zorroztu: euskal literatura eta begirada feministak* ikastaroa emongo dau. Eskolak zezeilaren 22 eta 23an izango dira Zeanuriko Kultur Etxean. Izena emoteko atzen eguna hilaren 15a da.

Tailerrak helburu bi ditu. Batetik, euskal kulturako zenbait ekarpen jakitera emotea eta bestetik, ekar-


pen horreen inguruko begirada feminista izatea.

Saio bi izango dira. Barikuan, hilak 22, 17:00etatik 20:00etara eta zapatuan 10:00etatik 13:00etara. Saioen dinamikeari jagokonean, lehenengotik partaideak adierazpide kultural eta sozialen bat alkarregaz irakurri, ikusi edo entzun egingo dabe; ondoren, adierazpide horreek interpretetako baliabideak eskainiko dira eta atzenik, begirada feministara hurreratzeke pausak emongo ditue.

Iratxe Retolaza Gutierrez

Iratxe Retolaza ezaguna da Arratian Arratiako Andren Jabekuntza Eskolea sortu zantetik hainbat ikastaro emon ditualako eskualdean. Literatura kritikaria da eta Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea. Euskaltzain urgazle da eta Euskaltzaindiako Literatura Ikerketa Batzordean parte hartu izan dau 2001etik.

Literatura inguruko hainbat saiakera lan argitaratu ditu; tartean, *Egungo euskal eleberriaren historia* (2107, UPV/EHU) eta *Egungo euskal komikiaren historia* (2017, UPV/EHU) Jon Batti Kortazarregaz batera.



Iratxe Retolaza.

IGORRE

Arratiako gazteak alkar ezetuteko topaketea eta Lemoako Gazte Topaguneko aurkezpena

Erredakzioa

Lemoako Karabie Gaztetxeak, Igorreko Kiñu Gaztetxeak, Zeberioako Gazte Asanbladak, Orratzak gazte talde feministak eta Ernaik, Gazte Topaketak antolatu ditue Kiñu Gaztetxean hilaren 9an. Helburua, alkarren barri izateaz gainera, saretuta egotea eta gai komunak eskualdeko perspektibatik landutea da. Dinamikeari "Hainbatera" izena ipini deusie, beste gauza batzuen artean, "talde desbardinak izanda lan egiteko eta munduari begiraturteko hainbat era daukaguzalako, eta helburua hain batera egotea dalako" dinoe antolakuntzatik.

Gazteak 10:00etan batuko dira gosaltzeko eta ondoren ezagutza jolasak egingo ditue. 11:15ean,

eragileen aurkezpena egin eta 12:00etan mahai-ingurua egongo da, Arratiako gazte eta gazte eragileen erronkak, indarguneak eta ahulguneak landuteko. Ordu bietan poteoa egingo dabe eta ordu bete beranduago bazkaria. Bazkarirako txartelak zezeilaren 6ra arte erosi daitezke 5 euroko prezioan Igorreko Herriko Tabernan, Karabie Gaztetxean eta Zeberioako herriko dendan. Bazkalostean Bilbora joango dira Gazte Topaguneko aurkezpena.

Izan be, egun horretan, Bilboko Zazpi Katu Gaztetxean, Aintzina eta Ernaik, Lemoan aprilean egingo diran Gazte Topaguneko aurkezpena egingo dabe. Ekitaldi politikoa eta Mugalari eta Eskean Kristö taldeen kontzertuak egongo dira han.

DIMA

Plazea berrantolatuteko lanetan jarraituteko da 2019ko Dimako Udal kontuetako diru partida nagusia

EH Bilduren aldeko botoakaz eta EAJ-PNVren kontrakoakaz, urtailaren 21ean, 2019ko Dimako Udal aurrekontuak onartu ziran. Udalak 1.686.707 euro kudeatu beharko ditu, igaz baino %4,9 gehiago.

Erredakzioa

Igoerea batez be Udalkutxari esker izango da. Baina aurtan be, "aurreko urtean legez, etxebizitza hutsen tasa gehigarria apliketan da Ondasun Mugiezinen gaineko Zergan (OMZ), %50eko gaintasa, etxebizitza hutsak merkaturatzeko bultzada emon eta izan daitezkezan demandai erantzuna emoteko" azaldu deutso BEGITUURI Borja Ruiz zinegotziak.

Plazearen berrantolatetearen prozesuaren bigarren faserako 190.000 euroko diru partidea dago. Diru hori Landaburu kaleko obrak amaitzeko eta plaza eta Landaburu kalea irisgarritasun baldintza egokiakaz komuniketako aktuazioak egiteko da.

Zubimakurreko herritarraz izandako batzarren ostean adostutako auzoko urbanizazioa egiteko be 40.000 euroko partidea aurreikusdi da.

Obako saneamentuaren bigarren faserako 150.000 euro dagoz. Ur Partzuergoak ordainduko dau obraren %75 eta Udalak %25. "Pozik gengoan lortu genduan, Partzuergoak %75 finantzietea, baina gero etorri zanean zenbatekoa zenbat zan, %25 hori



asko iruditu jakun" dino Nekane Intxaurtza Dimako alkateak.

Dana dala, sano lan inportantea dala azaldu deutso BEGITUURI Borja Ruiz zinegotziak. "Oba barrendia eta Oba hartzean ditu, bailararen saneamentuaren zati handia. Hau egindakoan sano gitxi geratuko da saneamentu sare nagusia osotuteko". Telleri kalean dagozan hats arazoai be konponbidea emongo jakie.

Kultura, euskera eta kirola

Kultura, euskera eta kirol diru laguntzetako diru partidea, igaz baino %10 handiagoa da aurtan, 44.000 euro guztira.

Memoria Historikoaren gaineko proiektu bat abiatu zan oin dala

hiru urte eta aurtan proiektua gauzatzeko dirua dago. "Arte Ederretako ikasle batzuei proposamena egin geuntsen Memoria Historikoaren gainean hausnarketea egiteko. Proiektua egin dabe eta aurtan proiektu hori egiteko asmoa daukagu" dino Ibon Iza kultura zinegotziak. Aukeraketa fase bat egin ostean, hiru artista dabilz proiektu horregaz.

EAJ-PNVk kontrako botoa

EAJ-PNVk aurrekontu honeen kontrako botoa emon eban, jeltzaleak plazearen proiektuaren kontra dagozalako, lurdana Acasuso zinegotziak Osoko Bilkuran azaldu ebanaren arabera.

ZEANURI

Ehun urte baino gehiagoko haretxak moztu dabezala salatu dabe Otzerinmendiko auzotarrak

Erredakzioa

Otzerinmenditik San Justora doan kaminoan, bide bazterrak garbitzeko Foru Aldundiak kontratutako enpresek, hainbat zugatz autoktono, tartean haretxak moztu dituala salatu dabe auzokide batzuk. Euren arabera, metro bateko diametroko pagoak eta ehun urte baino gehiagoko haretxak moztu dabez.

Auzokoak kejatzen dira euren terrenoetara sartu eta ezelango "logika eta zentzu barik" arbolak

mozten topau ebezala. "Gure lurretan urrestiak eta atzeko parteko haretx batzuk moztu dabez. Esan deuskue kaminotik 5 metro baino gitxiagora dagozan arbolak moztu behar ebezala, arriskua daukielako" azaldu deutso BEGITUURI kalte-tutako auzotar batek.

Otzerinmendin haretx asko moztu dabezala dinoe, tartean 200 urte inguruko batzuk. "Ez gabiliz berba egiten 40 urteko pinu baten inguruan, 200 urteko haretxaren inguruan baino" dino kaltetutako beste batek. Ezelango

logika bako triskantzea izan da.

Informazio barik

Ingurumenari jagokonean balio handiko zugatzak izateaz gainera, egindako moduagaitik be kejuu dira baseritarrak. "Gu ez gengoan informautu. Geure urrestia moztuten topau nebazan. Esan euskuen hori BOEn agertzen dala eta jakinaren gainean egon behar ginala. Baina ez gengoan". Jakin izan ezkeru, eurek moztuko ebezala arriskutsuak izan eitezkezan arbolak edo arbolen erramak dinoe.

AREATZA

Areatzako Plan Orokorra egiten hasteko dirua dago 2019ko Udal kontuetan

Urtailaren 28an, onartu ziran 2019ko Areatzako aurrekontuak EH Bilduren aldeko botoakaz eta EAJ-PNVren kontrakoakaz. Kontuon arabera, aurtengorako, 1.479.888 euro izango ditu Udalak.

Erredakzioa

Herri Antolakuntzako Plan Orokorra (HAPO) egitea toketan jako Areatzari eta hau 200.000 euro inguru izaten denez, urte bitan zatituta ebatzi dabe. Aurten 90.000 euro egongo dira horretarako.

Beste partida barri batzuk be baditue aurtengo kontuak. Holan,

euskera-gaztelera itzulpen zerbitzu bat izango dau Udalak eta horretarako 8.000 euro dagoz. Arratian Behargintza sortzeako 8.475 euro gorde ditue; Lemoa eta Bediagaz batera gazteentzako plan bat egiteko, 6.000 euro eta merkataria alkarteagaz herriko komertzioa bultzatzeko 1.980 euro.

Gazteen alokairua diruz lagunduteko 9.000 euro dagoz. "Eta

Areatza 1338n, etxebizitza bi erreserbauko dira gazteentzat" azaldu deutso BEGITURI Idoia Ruiz zinegotziak. "Hau oin dala hiru urte hasi genduan alde zaharra berbizteko politikaren barruan dago" dino Asier Garcia Areatzako alkateak.

Eraiki eta beste inbersino batzuk

Eraiki proiektuaren bigarren faseari ekingo deutso Udalak eta horretarako 10.000 euro dagoz. Fase honetan, aurrekoan ebatzitako batzuk gauzatuko dira eta prozesu parte-hartzaileguz jarraituko dabe udal eraikinai herritarren usteko erabilera egokiena emoteko.

Antzeko diru kopurua izango dau beste inbersino batek. Izan be, ugerlekuetako lurra aldatuteko 10.600 euro dagoz. Igaz be aldatu zan lurra, "baina ez zan ondo urten" alkatearen esanetan eta barriro be aldatu egin behar da.

EAJ-PNVk kontrako botoa

Jeltzaleak kontrako botoa emon



eben euren ustez aurrekontuetan gauza batzuk falta diralako eta beste batzuentzako partidakaz ez dagozalako ados. Areatza Gorbialden egon beharko litzateke la defendiduten dabe EAJ-PNVkoak, turismoa bultzatzeko batez be. "Udalak turismoa sustatzeko ipinten dau dirua baina gero ez

da ikusten" esan eban Damian Agirremota zinegotziak.

UEM Arako diru partidea egotearen kontra agertu ziran eta beste diru partida batzuen kopuruagaz be bai: beste herriakaz gazteentzako plana eta Behargintzarako dagozan diru kantida-deakaz, hain zuzen be.

ARRATIA

Agate Deuna aintzalduteko hainbat ibilbide Arratian zehar

Aurten be tradizinoak agindutako moduan, Arratiako auzune eta herrietako kaleak, koruz beteko dira, makila eskuan, santeari koplak kantetako.

Erredakzioa

Arratiako Koruak, Arratian bakarrik ez, Arratiatik kanpo be kantauko dau Ainhoa Uriaren zuzendaritzapean. Berrogeta bost lagun inguru ibiliko dira Kataniako santearen koplak kantetan. Batutako dirua Caritasentzat izango da.

Ibilbidea

Aurreikusitako ibilbidearen arabera, partaideak 07:30ean hartuko dabe autobusa Igorren Areatzara joateko. Areatzako parrokiaren, 07:45ean, urtero lez mezea entzun ahal izateko beharrean dagoz korukoak. 08:15ean, izango da urteke-rea; 08:25ean, Zeanurin kantauko dabe; 09:00etan, Diman; 09:25ean, Igorren; 09:45ean, Lemoan; 10:00etan, Zornotzan. Barriro be autobusa hartu eta Bilborantza abiatuko dira. Han, 11:15ean, kantauko dabe Begoñako Basilikan; 12:00etan, San Anton, Erribera merkaduan, Euskal Museoa, udaletxean, Laboral

Kutxan, BBVAn, El Corte Inglesen eta Kutxabanken; 13:45ean, Bizkaiko Foru Aldundian eta Moyua Plazan eta 14:30ean, Guggenheim museoan. Ondoren bazkaria eta 17:00etan ekingo deustie barriro ibilbideari, Moyua plazan, Ercillan, Kale Nagusian eta Arenalean kantetan. 18:30ean, San Nikolasen, metroan, Donibane santuen plazatxoan... 19:20an, Santiagoko katedralean eta 19:45ean, agur esango deustie Bilbori Arriaga aurrean. Azken txanpa: 20:15ean, Galdakao; 20:40ean, Bedia; 21:00etan, Arantzazu; 21:15ean, Artea eta egunari amaieraa emongo deustie Areatzan 21:30ean.

Koruak 68 urte bete ditu eta ez dago kantari faltan. Aurten be, 55 lagun inguru ibiliko dira santaeskean. Horreetatik 45 kantuan, besteak txistulariak dira edo dirua batzean dabenak. Baina aurten, akaso astelehena dalako, diru batzeako jente bila dabilz korukoak. "Kanteteaz gainera, dirua batzeako helburua be badauka"

ekintza honek eta horretarako bolutarioak behar ditue. Korukoak koplak kantau bitartean dirua batzean lagundu gura dabenak 661 962 063 telefonora deitu leikie.

Zeanuriko koruak eta besteak

Zezeilaren 4an, Arratia eta Zeberrioko auzune eta kaleetan abesbatzak, eskola umeak, parrokieta koruak, lagun taldeak edota kultur alkartetakoak kantauko dabez Agate Deunaren koplak.

Zeanurin, tradizino handiko koruak eta barriagoak ibiliko dira herriko erdigunean zein auzune urrunetan, makilak eskuan, tradizinoari eusten deustan koplak errepertorio aberatsagaz. Asterria, Undurraga eta hurrengo domekan Santa Ageda ermitan kantetan dauan korua dira zaharretakoak eta aurten be urtengo dira. Asterrikoak, 16:30ak aldera batuko dira, eta Asterrian, plazan eta inguruko etxe eta auzoetatik kantauko ditue koplak. Undurragako korukoak barriz 17:00etan batuko dira Undurraga Goikoan, San Pedro landan. Undurraga, Alzua, Ipiñaburu, Alzusta, Eleizondo eta plazea da aurreikusita daukien ibilbidea. Koru barriagoen artean, Eguzkiola alkartekoa dago. Honeek 17:00etan urtengo dira lokaletik.

Hurrengo domekan, hilak 10, Zeanuriko Agate Deunaren ermitan, santearen martirioa kontetan daben koplak zaharrak kantauko ditue mezan.

Artean be egun osoan entzun ahal izango dira santearen ome-nezko koplak. Goizean eskolako umeen txandea izango da eta

arrastian hitzordu bi daukiez arteztarrak: 18:45ean, Udalak deituta Kultur Etxean batuko dira herritik zehar koplak kantetako eta 21:15ean, Arratiako Korua izango da plazan.

Igorren be edade eta era guztietako taldeak batuko dira koplak kantau eta dirua batzeako. Parrokiako taldea berbarako, 15:00etan urtengo da futbol ze-laiko parkinetik.



Undurragakoak kantuan.




Arratiako Korua Bilbon.

LANA ARRATIAN

Lana enplegu duin bilakatzeko burrukan

2012an langabezia tasak goia jo eban Arratian, %12,5era helduz eta harrezkerotik behera egin dau. 2018ko urri lehenengoan Lanbideren datuen arabera, %8,5 zan; (%6,8 gizonezkoena eta %10,4 andrazkoena). Arratiako herri gehienetan %10 baino gitxiagora heldu zan, eta Arantzazuko % 6 eta Lemoako %11 bitartean egoan langabezia tasa. Baina 2007ko "krisialdiaren" aurreko tasara helduten bada be, egoera ekonomikoa aldatu egin da sano, eta harrezkerotik, jente askorentzako egoerak txarrera egin dau. Lana prekarizau, soldatak jeitsi eta desbardintasunak handitu egin dira-eta.



Arratiako enpleguaren bilakaerea. Errota Fundazioak Lanbideko datuakaz egindako grafikoa.

Erredakzioa

Abendutik aurrera, Euskal Autonomia Erkidegoko ekonomiaren hazkundera beherako bidean hasi zan, Eusko Jaurlaritzaren Termometro Ekonomikoaren arabera,

hazkunde egonkorretik hazkunde leunera pasauz. Arratian be, industrian batez be, joera hori ikusten dabe Errota Fundazioan. "Nik uste dot industrian gorakadea egon zala baina oin apurtxo bat gelditu dagoala" dino Iratxe

Goikoetxea Errota Fundazioako koordinatzaileak.

Arratiako langabezia tasa

Arratiako langabezia tasa Bizkaiko tasatik apur bat behera dago. "Krisialdiak" eragindako lanbakoan

kopurua igoten beranduago hasi zan Arratian, 2009an hain zuzen be, eta beti egon da Bizkaiko tasaren azpitik. Ha-ta guzti be, 2011 eta 2012an, Areatza eta Bedian, ia %19ra heldu zan, andrazkoenak %20 gaudituz.

2018ko amaieran, egoera aldatuta egoan. "Badagoz herri batzuk oso tasa bajua daukienak, Zeanurik, adibidez. Tasarik altuenak barriz, Lemoak, Igorrek eta Bediak daukiez. Artea be hor-hor dabil egon da 10etik behera, baina 2018ko urte amaieran, igon da 10etik apurtxu bat. Azkenean, biztanleria txikia dan kasuetan, batek edo bik lana topatzeak edo lan bariak geratzeak porzentajea aldatzen dau" dino Iratxe Goikoetxea Errota Fundazioako koordinatzaileak. Herri guztietan, Artean izan ezik, andrazkoen langabezia tasa gizonzkoena baino handiago da.

Industria ez hain ondo

Industriak Arratiako enplegu formalean pisu handia dauka, batez be automozinoak, eta sektoreak 2018an izandako gorabeherak sentidu egin dira Arratian be. "Nik uste dot automozino inguruan dagozanak gelditua izan dabela urte amaieran. Arratian, Erkidegoan eta Estatuan, pasetan dan gauza bera gertatzen da. Enpresa honeek bezeroak Europan daukiez eta mundu globlizau honetan, guri be heltzean jaku Europan gertatzen danaren eragina" azaldu deutso BEGITURI Errotakoak.

Agustin Figalek, LABeko Arratiako koordinatzaileak barriz, Erkidegoan orokorrean industriak gora egin dauan arren, ez dala gauza bera gertatu Arratian uste dau. "Arratia horretarako berezia da. Nik uste dot Arratian ez doala handitzen industria sektorea. Esango neuke ixten ari dirala enpresak. Adibidez, Igorren Negarra itxi zan igaz".

Errota Fundazioakoaren ustetan be egoera ez da oso ona, baina panoramea ez dau hain ilun ikusten. "Batzuek ateak zarratu dabez, baina beste batzuek zabaldu. Ni konsziente naz Negarrak, langile kopuru handiagaz zarratu egin dituala ateak. Langile gehienak Lemoa, Basauri eta Zornotzakoak ziran. Dimako industrialdean be Tecnogourmet zarratu zan. Janari prestatuak egiten ebazan enpresa honek. Baina beste batzuk hazi egin dira eta instalazioak handitu egin dabez. Industrialdean badagoz pare bat pabiloi barriak erosi dabezanak: Laskor, Langoitia, Ilunbe...".

Hitzarmenak eta azpikontra-tazioa

Langabezia tasa jeitsi arren, atzen urteotan enplegu formalaren kalidadea txarrera egin daua nabarmen erakusten dabe hainbat ikerketak. Soldatak behera egin dabe; hau da, ez dira bizitza igon dan beste igon. Eta horretan hitzarmenak sinatuteko dagozan zailtasunak dirala gakoia uste dau



Arratiako enpresa foroko kideak igazko bagilean Ormazabalera egindako bisitan. Argazkia: Errota Fundazioa.

Graduazinoak
Ikusmen terapia
Ikusmen gibusua
Begiko tentsioa
Lentillen adaptazioa
Kiroletarako betaurrekoak

Sabinu Arana 3, 48140 IGORRE (Bizkaia)
Tel: 94 657 70 03 - olaetxeoptika@hotmail.es

DIZIPLINA ANITZEKO ZENTRUA

- Psikologia
- Logopedia
- Fisioterapia
- Ulermen tailerra
- Jarrera arazoak
- Emozioen tailerra
- Psikomotrizitate
- Adimen emozionala
- Trebetasun sozialak
- Estimulazio goiztiarra
- Eta askoz gehiago...

652 702 650 / 672 481 370
Lehendakari Agirre 4 · Igorre
maite.eileke@gmail.com

Kili-Kili
Ampa eta Puntukoak

Lehendakari Agirre 10 · IGORRE (Bizkaia)
Tel: 94 673 63 81

J.A. IZQUIERDO
PINTURA LANAK

MOKETA · SINTASOLA · PAPERAK

Elizalde, 33 D - 1ºB · 48140 IGORRE (Bizkaia)
Tel: 94 621 64 62 - 908 864 018

izkaifisios

IGORRE
FISIOTERAPIA
ZENTROA

Elizalde, 4
48140 Igorre
94 631 35 08
igorre@izkaifisios.com

ANDRA MARI
KLINKEA

Pontzi Zabala, 1
48960 Galdakao
94 457 23 64
galdakao@izkaifisios.com

Zugaitik BEGITUten dogu
A.P.I. 495
www.inmobiliarialarrea.com

Lehendakari Agirre, 8 behe
48140 Igorre

Tfnoa: 94 631 80 04

Agustin Figalek. "Hitzarmena beti izan da langilearen eskubideak defendiduteko tresna bat, baina lege barriak dirala medio ia-ia indarbakotu egin da. Lan piloa egin behar da enpresen barruan hitzarmena lortzeako. Hitzarmen gehienak blokeauta dagoz".

Hori dala-eta, oin arte hitzartuta egon dana bertan behera gertatzen dala dino, eta hitzarmen eskasagoetara jo behar izaten dala. Hau da, alde batetik Langileen Estatutua dago, hori da oinarria eta bai ala bai bete egin behar da; gero Estatu mailako hitzarmena dago; gero, EAE mailan egon daitezkean hitzarmenak, eta atzenik, enpresakoak. Ez badago hitzarmenik enpresan, ezta EAE mailan, zuzenean jotzen da Estatu mailakora, "eskailera bat jeitsiz". Eta hori gero eta sarriago gertatzen dala dino LABekoak. Izan be, bere ustez, hitzarmena desagertu arazo gura dau patronalak, "atzenengo lege eta erreformak patronalari indar gehiago emon deutesie, langileen eskubideak alde batera itxiz. Horren adibide da, kontratuen %80 ez dirala urtebetera ailegetan".

Beste alde batetik, krisialdiaren aurretik, ia enpresa guztietan langileak finakoak ziran eta oin azpikontratazinao dala nagusi dino. Eta azpikontratauta dagoan langile batek, normalean, eskubide askoz gitxiago eukiten ditu, lan prekarioagoa.

Enplegu formala sortzean

Egoeragaz kezkatuta, enplegu formala bultzatzeko eta enpresak sortzeako lanean dihardue Arratiako udalak eta Mankomunitateak atzen urteotan. Arratiako Udalen Mankomunitateak (AUM) barbarako, eskualderako enplegu plan bat dauka martxan, eta Enpresa Ideen Lehiaketea lango


ekimenakaz, Arratian enpresa barriak sortzean lagundu gura dau. Udalak be euren plan edota ekimenak ateraten ditue aurrera. Batzuk aitatzearren, hor dagoz Igorreko Beharbide enplegu proiektua, edo Areatzako enpresen mintegia.

Arratiako garapena bilatzen dauan Errota Fundazio publiko-pribaduak be urte bi daroaz beharreen. Garapen hori lortzeako arlo askotan egiten dau lan, enplegu eskaerea eta eskaintzaren zubilana egiten. "Enpresetatik jasoten dodan mezua zera da: beharginak topatzea kostetan jakieila. Batez be, esku lan zuzena danean. Lan batzuk espezializazino handikoak dira eta bertako enpresak arazoak daukiez behar horreetarako beharginak topatzen". Hori dala-eta, Zeanurin dagoan Zulaibar Lanbide Heziketa Ikastegia eta Arratiako enpresen artean komunikazino eta hartu-emonak sustatzen saiatzen da fundazioa. Holan, Zulaibarko ikasleak enpresetara egiten dabez bisitak, enpresak barritutik ezetuteko. Baita Institutuko ikasleak Zulaibarrera be, dagozan aukerak ikusteko. Gainera, Enpresa Foroetan, enpresakaz batera, Lanbide Heziketako Ikastegiak parte hartzean dau.

Errota Fundazioa ekonomia soziala bultzatzen be saiatzen da. "Lan mundua ez da dana enpresa: badagoz ekintzaileak, badagoz lehenengo sektoreran dediketan diranak, badagoz ekonomia soziala deritxan horretan jarduten dabenak..." eta errealidade hori be ezetuten emoten saiatzen dira.

Enplegu ez danaren lanaren ekarpena ekonomian

Patronala indartzeaz gainera, krisialdiaren atxakiagaz, murrizketa handiak egin ziran zerbitzu publikoetan eta batzuk esku pribadu-



Andra eta gizonen langabezia tasa 2018ko hirugarren hiruhilekoan. Iturria: Lanbide.

duetan be ipini ziran. Hori dala-eta, zaintza lanetako sektore pribadua asko hazi da. Sektorea feminizauta dago eta lan baldintzak kaskarrak dira. Askotan, familiak edo familiako andrak hartu behar izaten dabez bere gain.

Euskal Herrian, dependentsia daukien personen kopurua handitzen doa, baina "zerbitzuak gero eta okerragoak" dira sindikatukoaren ustez. "Guk argi ikusten dogu hori zerbitzu publikoa izan behar dala eta horrek esan gura dau funtzionario publikoak emon beharko leukiela zerbitzua. Eta euren lan baldintzak onak izan behar dira. Zerbitzu publiko on bat emoteko, lan baldintzak onak izan behar dira halabeharrez". Zerbitzu kaskar horreek ixten dabez ganabek, andrak beteten dabez.

Dependentziaren bat daukien personen zaintzari jagokonean, Monica Ramos Toro antropologoaren arabera, edadeko andrak

zaintzaile "ejerzito" informal bat osotuten dabe, Estaduari diru piloa aurrezten.

Jubiladu eta pensinodunak 1.080 euroko gitxienezko pensino eskatuten dabiz astelehenero Bilbon, ze ekonomia arloan, lan eta ekarpen handiak egin arren gizarteari, askok ez dabe bizimodu duina egiteko lain jasoten. Elkarretaratze horreetara Arratiako pensinodun asko joaten dira astelehenero. Arratiako ia herri guztietan dagoz jubiladu eta pensinisten alkarteak eta zahartze aktiborako ekintzez gainera, pensino duinen aldeko burrukan dabilz.

Gizarte klase barri bat

Gitxienezko pensino duina eskatzeak eta ez ehuneko soil bat, estrategikoa da. Izan be, enplegu formaleko kotizazinoetan oinarritutako pensinoak tranpa bat izan dira eta dira bizitza osoan zaintza eta etxeko lanetara dedikau diran

andrentzat. Sistema horregaz askok alargun geratutakoan sano pensino bajuak jasoten dabez. Bizkaian batez bestekoa, 830 euro ingurukoa da, baina 600 euro baino gitxiagokoak be badagoz.

Pensionistez gainera, andrak be euren indarra erakutsi eben igaz Bizkaian, eta mundu osoan zabaldu ziran euren aldarrikapenen irudiak. Lan duina eta bizitza duina eskatuten daben kolektiboak ugariak eta zabalak dira, eta klase subjektua berrosotuten dagozala esan leiteke, klase barri bat sortzean.

Igazko martiaren 8an, lau ardatzetako greba deialdiagaz erakutsi eben zein izan daiteken klase subjektu hori. Aurten bost izango dira ardatzok, pensionisten ardatza gehitu egin da eta martiaren 8ko greba deialdira.

Egoerea iraultzeko aliantzak behar dira. Eta alianza horreek gizarte klase barri bat sortu leikiela dirudi.

Arratia
Ubide eta Zeberioko
euskera
eta kulturearen alde

Egin zaitez zeu be
Daguz jasoko dozuz Zertu Kultur Elkarteak ateralako produktuak.
Hamabostean behin sari izelen zozketan parte hartuko dozu.

Degitu-lagun

Zertu Kultur Elkartea
Berrao Plaza 21. 40112 Arratia

Izen-abizenak:
Itelbidea:
Herria:
Telefonia:
E-posta:
Urteko kuotea aukeratu: 35€ 55€ 75€

begitu
anillo verde saria

MENDIA**Alex Txikonek K2ko bigarren kanpalekura arte ekipau dau bidea****Eneko Garamendi eta Alex Txikon.****Erredakzioa**

K2ren tontorrak inork ez dau oindino zapaldu neguan eta Alex Txikon lemoaztarraren erronka tontor hori zapaldutea da. Atsedena hobeto hartzeko eta errendimendua hobetuteko 5.100 metrotara dagoan behe kanpalekuan, kanpindendak ipini ordez, igluak egin daitez. Holan temperatura eta oxigeno saturazioa hobeakaz, atsedenean asko igarri dauala dino Lemoakoak.

Gau batzuk igluetan emon ostean, alpinismoan igluak erabiltea mugaria jarriko dabela dino Txikonek; izan be, 25 gradu inguruko aldea egon daiteke kanpindenda eta igluaren artean. "Janlekuan, 13 gradu zero azpitik egoazan, kanpindendan 26 zero azpitik eta igluan

5 zero azpitiko tenperatura izan dogu. Neguan egin dodazan 8 espedizioetako atsedenean aldetik gaurik onena izan da" dino Txikonek.

Taldeak hiru iglu handi eragiteko zortzi ordu emon ebazan. Haizeak ez eroateko be bentajea daukie igluak. Gorago be igluak egitea ez dau baztertzen Txikonek.

Beste talde bat

Alex Txikonena ez da K2 neguan tontorra egiten saiatuten dabilen espedizio bakarra. Errusia eta Kazakhstango talde bat be han dago eta aurrerago doaz, bigarren kanpalekuan, hain zuzen be. Txikonek ez dauka presarik eta bere taldeak bigarren kanpalekura arte eukan ekipauta zenbaki hau zarratukeran.

MENDIA**Inozko Kolazino Mendi Egunik gogorrena eta bigarren urtez EMFko ranking-aren parte**

Martian 23an izango da Bediako Tiritu alkarteak antolatuten dauan V. Kolazino Mendi Eguna, eta daborduko izena emon daiteke kolazinokomendieguna.com webgunean.

**Kartela.****Erredakzioa**

Lau proba egongo dira: 24 kilometro eta 1500 metro desnibel positibodun Mendi Lasterketea; 35 kilometro eta 1300 metro desnibel positibodun BTT Lasterketea; 20 kilometro eta

1000 metro desnibeleko Mendi Martxea eta Junior eta Kadeteentzako 15 kilometro eta 800 metro desnibeleko Mendi Lasterketea. Bigarren urtez jarraian, Euskal Mendizale Federazioak antolatuten dauan ranking-aren parte izango da.

Proba guztien ibilbideetan, al-daketa batzuk egongo dira, nahiz eta neurria mantentzen. Izan be, ibilbidearen "edertasunari begira" egin dabez aldaketok antolakuntzakoak. Holan, esate baterako, Mendi Lasterketan eta Mendi Martxan parte hartuten dabena, lau tontor zapalduteko aukerea eukiko dabe. Horretarako, Erosomendi (196m.) mendira doan ibilbidea garbitu eta berreskuratu dabe antolakuntzakoak. Mandoia (638m.) Zeata (336m.) eta Santiagozar (392m.) dira ibilbideko beste hiru tontorrak.

Antxinako ibilbideetatik zeharreko proba gogorak

Antolatzaileak, hasikerako filosofiagaz jarraituten dabe bosgarren edizino honetan, antxinako ibilbideak erabiliz Bedia eta bere ingurune menditsua ezetuten emoteko.

Ha-ta guzti be, parte hartzeako prestaketea beharrezkoa da. "Kolazino Mendi Eguneko ibilbideak neurriak mantentzen badauz be, gogorak dira eta aurrez ez da desbardin izango" eta antolatzaileak "preparazio minimo bategaz etortea" gomendatzen dabe.

Matrikula garaia

**Zezeilaren 8ra arte.
Emon izena Arratiako ikastetxeetan.**

Arrebiako Herri Ikastetxeak
Gure
ikastetxeak
Euskalduna
kalidazkoak
herrikoia

JB Eguzkiza Meabe HI
Tel.: 94 631 32 28 Lemoa

Ugarana HI
Tel.: 94 631 55 32 Dima

Zubialde HI
Tel.: 94 648 06 82 Zeberio

Zeanuri HI
Tel.: 94 673 93 33 Zeanuri

Ikastola Arratia HI
Tel.: 94 673 90 65 Artea

Arratia BHI
Tel.: 94 673 62 37 Igorre

Areatzako Herri Eskola
Tel.: 94 673 90 93 Areatza

I. Zubizarreta HLHI
Tel.: 94 673 60 22 Igorre



SARIAK

Aitzol Atutxa eta Amaia Alday 2018ko Bizkaiko kirolaririk onenen artean

Erredakzioa

Urtilaren 20an El Correo egunkariak 2018an Bizkaian nabarmendu ziran kirolariak saritu ebazan. Euren artean Dimako bi egon ziran: Aitzol Atutxa azkolaria eta Amaia Alday pelotaria.

Saria be eroan eben, Lointek Gernika saskibalo taldeak; Patri Espinar, Olatz Arrizabalaga eta Leire Etxaniz pelotariak, Eider Merino txirrindulariak, Lucia Garcia futbolariak, Naomi Matthews burrukalariak, Jon Rahm golf jokalariek, Kerman Lejarraga boxeolariak, Omar Fraile, Igor Anton eta 2018an hildako Javier Otxoa txirrindulariak, Natxo Gonzalez surfariak, Juan del Campo eskiazaileak, Urdaibai, Zierbena eta Isuntza arraun taldeak eta Goiherri eta Laukiz sokatira taldeak.

Jose Angel Iribar futbolari ohiak jaso eban omenezko saria.

PELOTEA

Zezeilaren 3an emongo jako hasikerea Emakume Master Cup Txapelketeari

Erredakzioa

Laboral Kutxako Emakume Master Cup Txapelketea zezeilaren 3an hasiko da Murgian. Lehen Mailan, sei bikotek jokatu dabe multzo bitan eta talde bakotxean ligaxka bat jokatu da. Amaia Alday Dimako pelotariak Ainhoa Romero izango dau bikotekide. B taldean dagoz.

Talde honetako beste bikote biak honeek dira: Olatz eta Maite Ruiz da Larramendik osotutakoa, eta Iera Agirrek eta Olatz Arrizabalagak osotuten dabena.

FUTBOLA

Arratiak lidertza galdu dau

Erredakzioa

Arratia andrazkoen taldeak lidertza galdu dau eta Tolosak hartu. Hemeretzi jardunaldi jokatu eta gero Arratia bigarren da liderarengandik puntu batera 45 puntugaz. Urtilaren 26an Oiarzunen kontra bana bardindu eban Arratiak eta aurreko astegienean 8-0 irabazi eban Deiorren kontra Urbietan. Datorren partidua Hernaniren kontra jokatu dau Arratiak Urbietan zezeilaren 3an 18:00etan.

Arratia B

Arratia B andrazkoak osteraren 26an jokatu atzen partidua 9-0 irabazi eben, aurreko astegienean jokatu atzen partidua barriz 2-0 galdu eben. 15 jardunaldi eta gero laugarren dago sailkapenean 25 puntugaz. Datorren partidua Arizen kontra jokatu dau Arratiak etetik kanpo zezeilaren 2an 18:00etan.

Arratia gizezkoak A

Arratia gizezkoen taldeak jokatu atzen partidu biak galdu ditu. Urtilaren 26an 1-2 galdu eban etxean Apurtoarteren kontra eta emoitza bardinagaz galdu eban etxean be Gatikaren kontra. 18 jardunaldiren ostean Arratia 14. dago sailkapenean 17 puntugaz. Datorren partidua zezeilaren 2an jokatu dau Igorreko taldeak Galdakao Aren kontra 18:30ean etetik kanpo.

Arratia gizezkoak B

Arratia gizezkoen B taldeak be atzen partidu biak galdu ditu. 18 jardunaldiren ostean bosgarren dagoz sailkapenean 32 puntugaz. Datorren partidua Ibarsusiren kontra jokatu dabe Urbietan zezeilaren 2an 16:00etan.

LemoaHarrobi

Lemoakoak osteraren 26an jokatu atzen partidu biatik bat irabazi eta bestea galdu egin dabe. Urtilaren 26an jokatu atzen partiduan 0-1 galdu eben Ermuaren kontra, aurreko astegienean 3-2 irabazi eban Bermeoren kontra Arlonagusian be. 18 jardunaldiren ostean LemoaHarrobi bosgarren dago sailkapenean 31 puntugaz. Datorren partidua zezeilaren 2an izango da Gernika Sporting-en kontra 18:30ean etetik kanpo.

RAIDA

Unai Silba eta Urdax Moreno lemoaztarrak hartuko dabe parte Desert Trophy Panda Raidean

Erredakzioa

Igaz erosi eben Fiat Panda kotxea Unai Silba eta Urdax Moreno lemoaztarrak rally honetan parte hartzeako baina ezin izan eben parte hartu epez kanpo heldu ziralako. Aurten hartuko dabe parte lehenengoz, Marokoko basamortutik doan rally horretan eta urtilaren 19an kotxearen aurkezpena egin eben Lemoan. Desert Trophy Panda Raida zezeilaren 16tik 24ra bitartean izango da.

Ibilbidea mendi, ibai eta basamortutik pasauko da eta holaringo bideetatik ibilteko egokitu dabe kotxea. "Urte osoa emon dogu horretan" azaldu deutso Silbak BEGITURI, "eta oindino ez dogu amaitu".

Sailkapen orokor bat be egongo dan arren, hiru kategoria dagoz, kotxearen arabera: Panda/Marbella 4x2, Panda 4x4 eta Terra 4x2. Lemoaztarrak Panda 4x2en sailkapenean dagoz.

Abiadura kontrola

Europar antolatu eta Afrikan egiten diran rally eta raidak zeharkatzen dabezan herrietan "hautsa,



Unai Silba eta Urdax Moreno.

zaratea eta inoz ezbeharren bat" ixten dabe. Raida errespetuzkoa izan daiten, partaideen abiadura kontrol "zorrotza" izaten dabela dinoe antolakuntzakoak euren webgunean, eta herrirka txikitzen 20 kilometro orduko eta pistetan 80 km/h da hartu leikien gehieneko abiadura.

Raidak eskolako materialez betetako kamioi bat be eroango dau eta partaideak be eroan leikie eskolako materiala.

Lemoako aurkezpenean, be jaso eben material hori.

TXIRRINDULARITZEA

Erreterian aurkeztu ebezan Muriasen aurtengo taldeak

Erredakzioa

Murias taldeak aurkezpen ekitaldia egin eban urtilaren 23an Erreterian. Han, Euskadi-Murias taldeko txirrindulariak eta Murias-Limousine andrazko txirrindulari taldea aurkeztu ebezan. Baita, Aritz Bagueseri omenaldia egin be. Euskadi-Murias taldearentzat, aurtengoa bosgarren denporaldia da profesionaletan eta bigarrena mailarik gorenean.

Euskadi-Muriasek 20 txirrindulari izango ditu aurten, Murias Limousinek Oriako Txirrindularitza Eskoleagaz batera sortutako talde barriak barriz, sei.

AZEkoak Danimarkara

Arratia Ziklista Elkarteko zuzendaritzakoak eta beste kide batzuk Baguesen (Danimarka) izango dira zezeilaren 1etik 4ra, hilaren 2an jokatu dan Munduko Ziklo-kros Txapelketako lasterketea ikusten.

ERRUGBIA

Taula erdian dago Arratiko Zekorrek Avia Rugby Taldea

Erredakzioa

Nahiz eta atzenengo partidua Sarako Izarra RTren kontra 76-0 galdu, atzenaurreko partidu biak irabazi egin ebazan Arratiko Zekorrek taldeak eta azkenaurreko postutik taularen erdiraino igon dira Igorrekoak. Izan be, laugarren dago Euskal Liga Senior 2 Maila Ako sailkapenean, 18 puntugaz. Hiru talde ditu aurretik eta beste hiru atzetik. Sarako Izarra RT da lider 43 puntugaz.

Urtilaren 26an liderraren kontra jokatu eben arratiarrak Lapurdin, Stade Sarako Izarra zelaian. Han ezin izan eben, ezta tantu bat be egin eta lapurtarren nagusitasuna agerikoa izan zan.

Datorren partidua etxean jokatu dau San Txisme errugbi zelaian AZ Aviak, sailkapenean bigarren dan R.C. Rioja taldearen kontra. Zezeilaren 9an izango da arrastiko 16:00etan.

 mediku naturista Zamakoa, 9 - 48960 Galdakao
argaltzeko terapia 94 600 21 12 - 94 600 87 56
kosmetika naturala
elikagai biologikoak L. Agirre, 9 - 48140 Igorre
zelakoentzat elikagaiak 94 631 14 39
estebizena



TXONDORRA

Benito "Aspuru"n ametsa

Aurreko belaunaldietako ikazkin zaharrak joandakoan, eurakaz joan-galdu ez daiten tradizioa iziotu zan txondorra abenduaren 22an Artaungo Larrazabalen.

Zinbrien taldea

Benito "Aspuru" izan dogu lekukoa pasau eta garai bateko langintza hau erakutsi deuskuna, aurretik joatzu Aspuru gure esker ona.

Txondorra ikatza egiteko eratzten dan kono formako egurmetea da. Txondorra eregitzen dan guneari txondor plaza edo botolekua esaten jako.

Zinbrien taldeari esker erakutsi da ikazkinen langintza oingoan Diman. Egindako txondorra araki txondorra izan zan, holantxik esaten jako eta erramakaz, egur hondakinak edo leku eskasetan egiten zan txondor txikiari.

Txondorra egiten, altzetan hasi baino lehen egurra ebagi, pilatu eta txikitu egiten da txondor plaza edo botolekuren inguruan.

Txondorra egiten hasteko lehenengo zeregina, txondorraren oinarria izango dan sare moduko egitura bat osotutea izan zan. Beronen erdian gida moduan zutoin bat, —alkatea— kokatu genduan, eta horren inguruan, neurri bereko lau egur zati sendo tximinia edo txondorraren kebidia osatuko ebenak. Hortxe erdian kokatuten da alkate izeneko makila luzea, hau da, txondorraren altuerea zuzenduko dauan ardatza.

Txondorraren barruko euskarriak kokatu eta gero, txondorraren bihotzean, labean, abar

siku batzuk sartu genduzan, gero txingarrakaz txondorra iziotuterakoan sua erraz iziotu daiten, ondoren behetik gora eta bueltan-bueltan txondorra eregitzen joan ginan.

Kanpotik ikusita, armiarma sare bat balitz ekin geuntsan txondorra osotuteari.

Behin txondorra egurrakaz osotuta, berau, zohiakaz estali genduan. Gainean iduriagaz errematau genduan (txondorra egindako lekuetan egoten dan lur baltz arin eta fina) ondo tapauta gelditu daiten.

Oso garrantzitsua da guztia ondo estaltzea; su emon eta gero txondorrera haizea sartuko balitz, poliki-poliki egosi beharrean, guztiz erreko litza-tekelako txondorra, eta dana alperrik galdu.

Txondorra iziotuteko txingarrak sartu genduzan tximinatik eta jarraian betegariz bete kebidia osoa eta tximini zuloa zohiakaz itxi. Hau guztia egin eta gero zulo txiki batzuk zabaldu genduzan txondorraren inguru osoan, handik kea atera daiten.

Barruko suak eragiten dituan zuloak betegarriagaz bete eta zohi eta iduriagaz estaltzen genduzan ahalik eta lasterren; guztia errauts bihurtzeko arriskua sortzean da eta.

Egurra egoste prozesuan zehar, haizearen nondik-norakoa ondo aztertu eta jagon behar dau ikazkinak; haizeak zeharka jo ezkerreko hauspoarena egin

eta su hartzeako arriskua handitu egiten da eta.

Esan dogun modura, su emoterakoan, alkatea goiko zuloatik, tximinatik tirata atera genduan, eta kebidia edo egurraren labea deitzean doguna garbi ikusi genduan, sua iziotuteari ekin geuntsan.

Ordu gitxiren buruan, kea dariola —lurrina— ikusi genduan txondorra eta, ondorioz, txondor barruko egurra eraldatzen hasi zan: ikatz bihurtuten. Egur metaren, txondorraren barruan gertatzen dan prozesua ura galtzea da, poliki-poliki suak ura xurgatuko deuto egurrari eta ikatz bilakatuko da. Egurra, beraz, ez da erreko; apurka-apurka egosi baino.

Egunak pasau ahala, txondorraren kono formea desitxuraturaten joan zan, altuerea galduz. Nozean behin, palatapa bateguz jo be egiten genduan txondorraren gainazaleko zuloak zarratu eta egosketa ondo egiteko. Egurra egosi bitartean, suak zabaltzen eban zuloak betegarriagaz elikatzen genduzan, eta jarraian zuloak zohiakaz eta iduriagaz estali edo zarratu.

Astebete iraun eban txondorrak bere prozesua egiten, egun pare bat hotzitzen itxi eta ikatza aterateari ekin geuntsan urte barri egunean.

Une horretan be arreta handiz jokatu behar da txondorrak su hartzeako arriskua sortzean da eta.

Zenbat egur-ikatz lortzean dan galdetuta, ez dago zehatz jakiterik; egurraren arabera eta egoereak ez ezik, zenbat ur galdu dauan, haizeak egosketa azkartu dauan edo ez... faktore askok daukie eragina eta. Gure kasuan, 7 tona egur inguru erabilia 1.000 kilo ikatz atera genduan.

Amaitzeko, eskerrik asko Artaunera hurreratu zinien guztioi eta, bereziki, Benito Aspuruari, jakituria eta esperientzia gureganatzearen.

Artaun, 2019ko ilbeltza

Gau baltza, negu gorria lanbroa eta euria jateko gutxi egoan baraua ta zauria lehengo basoen altzoan aurkitu behar ogia berotasun eskasia, eta suaren premia zohiagaz estaltzen ziren txondorra eta zahagia ekarri gurako geunke ikazkinen irudia tximinatik kea gora ta lurrean iduria oraindik ikusten dogu orduko arpeien argia.

ANTZEZLANA

Senidetasuna landuten daben zazpi istorio antzeztuko dabez anaiak diran aktore bik

Erredakzioa

Zezeilaren 2an, iluntzeko 20:00etan, Ander Lipusen zuzendaritzapean, Ximun Fuchs eta Manex Fuchsek *Zazpi senideko* antzezlan antzeztuko dabe Igoerreko Lasarte Aretoan.

Antzerki lan honek zazpi lagunek idatzitako testigantzen kontakizunak ditu oinarri. Lander Garro, Gaizka Sarasola, Lorentxa Beyrie, Aitzaro Arano, Argi Perurena, Unai Iturriaga eta Eñaut Castagneten testigantzak, hain zuzen be. Igor Elortza izan zan idazkera aholkularia, testingantza desbardinak

batu dituan.

Sinopsia

Anaitasunarena, txikitatik eregitako laberintoa da, igesbide bakoa, lotura definitibo bat. Odo-lekoak ala biziak eskainitakoak, senideak norbanakoa osotuten dau. Baina zelan jokatu anaia, ahiztea, nebea edo arrebea ebatzia izan jakunean? Presondegiak, auto istripuak edo gaixotasunak bete ezinezko hutsunea sentidu arazoten dauanean, zelan dirau gurea dogun gu horrek bizirik?

Aktore bi. Anaia bi eta zazpi istorio antzerkira ekarriak.



KONTZERTUA

Ruper Ordorika Igorren

Erredakzioa

Zezeilaren 16an, 21:30ean, Ruper Ordorikak kontzertua emongo dau Igoerreko Lasarte Aretoan.

2018ko abenduan, zuzeneko diskoa grabau eban Bilboko Kafe Antzokian eta gau haretan sasoi desbardinietako errepertorio onena jo eban. *Ene begiek, Zaindu maite dozun hori, Belauniko, Martin Larrale, Fas Fatum, Zerutik gertu ez da ondo egoten, Ez da posible* eta abar. Kantu horreek Igorren be entzuteko aukerea egongo da. "Euskal musikagintzearen zutabe bat, bere onenean, musikari ikaragariz inguratuta eta bere onenak emoten".

Ruper Ordorika

Ruper Ordorika (Oñati, 1956) euskal kantari ezagunenetakoa da, barrizaillea eta lan oparoa egin dauana. 1980ko hamarkadan Pott



Txondorra Larrazabalen (Artaun, Dima).

KANTUA

Anje Duhaldek kontzertua emongo dau Areatzan Arratia kantuz taldearen bigarren urteurrenean

Erredakzioa

Arratiako kantuzaleak ekitaldi berezia antolatu dabe Areatzan zezeilaren 16rako, euren bigarren urteurrena ospatuteko. Anje Duhalde be egongo da bertan eurakaz. Seiretan kantaldia emongo dau Udal Areatoan eta afalostean, Duhaldek eta bertaratutakoak kantatzeari ekingo deusie, eguna kantuan amaituteko.

Anje Duhalderen kantaldia izango da lehenengoa baina ez azkena. Izan be, emonaldiaren ostean, 19:30ean, kantu poteoa egongo da Arratiako Kantu bat gara taldeagaz. Ondoren, 22:00etan, afaria izango dabe

Aldamin jatetxean eta afalostean, kantuan hasiko dira barriro Anje Duhaldegaz batera. Afarira apuntetako 656 784 982 telefonora deitu behar da.

Arratia kantuz

Arratia kantuz proiektua 2017an sortu zan, Arratiako kantuzaleak kantu poteoak antolatuteko batu ziranean. Eskualdeko herri guztietan ibili dira eta ibiltan dira; Arantzazun, Areatzan, Artean, Beldian, Diman, Igorren, Lemoan eta Zeanurin. Kantu poteo batzuetan, Kantu bat gara musika taldeak jotzen dau. Danak egongo dira proiektuaren urteurrenaren ospakizun ekitaldian.

ERAKUSKETEAK

Arratia posta txartelean erakusketea Igorren izango da hilaren 28ra arte

Erredakzioa

Zezeilaren 1etik 28ra, Jon Uru-txurtu zeanuriztarraren *Arratia posta txartelean* erakusketea egongo da Igorreko Kultur Etxeko Erakusketa Gelan. XX. gizaldiaren hasikerako Arratia agertzen dan 89 posta txartel dagoz ikusgai, baita sasoi haretan Arratian grabautako zine irudiak, NODOkoak tartean. Erakusketea Jon Urutxurtu historialariak 2014an argitaratutako izen bereko liburuan oinarrituta dago.



ZINEKLUBA

HIESaren sasoi baltzeko pelikulea zineklubean

Erredakzioa

Zezeilaren 7an, 20:00etan, Robin Campillo zuzendariaren *120 battements par minute* 2017ko pelikula frantziarra ikusteko aukerea egongo da Lasarte Areatoan. Filmak hainbat sari jaso ditu, tartean, Cannes jaialdiko Grand Prix Saria.

Filma Parisen dago girotuta, 1990eko hamarkadaren hasikeran. HIESaren inguruan konzientzia sortzean saiatzen dan ekin-tzaile talde baten istorioa kontetan dau. Taldekide barri bat sartuko da, Nathan izenekoa eta bere azken arnasa burrukan gastetan dauan Seanen erradikalitasun eta energia

ikustean harrituta geratuko da.

Nahuel Perez aktore argentinar ezagunak egiten dau Sean Dalma-zoren papela eta Arnaud Valois-ek Nathan-ena.

Robin Campillo

Robin Campillo, Marokon jaiotako gidoigile eta zine zuzendaria da. *Les revenants* eta *Eastern Boys* dira Campilloren beste pelikula batzuk.



DUNBA

Areatzara ekarri dabe itsasoa

LH3ko ikasleak itsasoa proiektuaren zati bat amaitu dabe eta gelea itsaso bihurtu dabe.

Areatzako eskolako LH3ko ikasleak

Aurten, Areatza HLHIko LH3ko ikasleak itsasoa proiektua lantzea aukeratu dabe. Hau dala eta, gelan itsaso txiki bat egitea ebatzi eben eurak egindako itsasoko bizidun batzuk jartzeko. Bizidun bakotxa egiteko, beharizanak sortu ziran. Animalia bakotxaren ezaugarriak eta informazioa biltzeako txantiloia sortu eben eta oso lagungarria izan zan ondoren bizidunak egiteko. Txantiloio ho-

rretan, bizidun bakotxaren elikadurea, bizilekua eta sakonerea, familia, izen zientifikoa eta beste ezaugarriak idatzi ebezan.

Bizidunak kokatzeko, itsasoa sortu behar eben eta horretarako gelako espazio bat tela urdinez estaltzea ebatzi eben. Hori egiteko neurketak egin behar izan ebezan, ondoren zenbat tela erosi behar eben jakiteko. 3,25 metroko altuereta eta 12,5 metroko luzeereta eukan estali beharreko zatiak eta tela erosteko aukereta aurrekontu desbardinak aztertu

ebezan.

Behin zenbat tela behar eben eta bizidunak zelan egin ebatzi ebe-nean, animaliak sortzean hasi ziran gelako itsasoa kokatzeko. Itsasoa erre-alagoa izateko harkaitzak eta arrokak ipini ebezan, horretarako material desbardinak erabiliz.

Animalia batzuk lar handiak edo lar txikiak ziran ez, eskalea erabili eben itsasoa kokatzeko orduan. Bizidun bakotxari etiketa bat ipini eutsien izenagaz eta han zein eskalara eginda egoan adierazo eben.

Itsasoko sakonerea be aztertzen ibili ziran ez, itsasoko punturik sako-



na Maria-netako hobia zala ikasi eben. Filipinetan kokatuta dagoala eta 11.033 metroko sakonerea daukala. Datu interesgarri hau adierazteko pasilloan, horma-irudi bat egitea pentsatu eben munduko mendirik altuena (Everest, 8.848 metro), eta itsasoko punturik sakonena (Marianetako hobia, 11.033 metro) irudikatuz. Hau guztiau egiteko barriro be eskalea erabili eben eta erre-alidadea 6.117 aldiz txikitu behar izan eben; hau da, 1:6.117 eskalara egin behar izan eben horma-irudia.

AGENDEA

ZEZEILAK 1 ARRATIA

Hilaren 15era arte, Iratxe Retolazaren *Begiradak zorrotzu: euskal literatura eta begirada feministak* ikastaroan izena emoteko epea zabalik. Online, udaletxeetan eta AUMen.

ARTEA

12:00etatik 13:00etara, eusGara proiektuaren urteurrena. Oin arte egindako lana azalduko da. Bildosolako Industrialdeako SPRIko bulegoetan. Osteen kopautxoak.

Hilaren 11ra arte Mikel Deuna Jubilatua eta Pentsionisten alkarteak antolatutako telefono mobikorraren gaineko ikastaroan izena emoteko epea zabalik. Udaletxean. Ikastaroa zezeilaren 25ean eta martiaren 4 eta 11n izango da 10:00etatik 12:00etara.

BEDIA

Martira arte, Kolazinoko Mendi Eguneko lasterketetan izena emon daiteke www.kolazinokomendieguna.com webgunean.

DIMA

19ra arte, oposizino-lehiaketa aske bitartez beteko dan administrari lanposturako dokumentazioa aurkezteko epea udaletxean.

3. adinean ariketa fisikoa sustatzeko ikastaroan izena emoteko atzen eguna. Udaletxean.

18:30ean, andren asanblada Arratian martiaren 8ko greba prestatzeko. Abaroa Aretoan.



IGORRE

Hilaren 11ra arte, jubiladuentzako Photoshop ikastaroan izena emoteko epea Jubiladuen txokoa. Ikastaroa zezeilaren 18tik 28ra izango da 10:00etatik 12:00etara, edo 12:00etatik 14:00etara.

19:00etan, *Arratia posta txartelean* erakusketearen inaugurazioa. Erakusketea hilaren 28ra arte.



LEMOA

Frontenis Txapelketetan izena emoteko epea zabalik hilaren 4ra arte. Kiroldegian.

Martiak 1era arte, Lemoako Haur eta Gazteen XVII. Ipuin Lehiaketan lanak entregetako epea.

ZEANURI

19:00etan, Santa Agedaren bezperarako koplak ensaioa eta poteoa Eguzkiolan.

ZEZEILAK 2 AREATZA

Parketxeak antolatuta, *Zein da Arratia ibaiako uraren kalitatea?* familiari zuzendutako ekintza. Izena emoteko 94 673 92 79 telefonoan edo gorbeia.parke.naturala@bizkaia.eus helbidean.



IGORRE

20:00etan, Artedrama konpainiak *Zazpi senideko* antzeztuko dau Lasarte Aretoan.



ZEBERIO

10:00etan, Udalak antolatuta, fruta-arbolak inauteko ikastaroa, Unai Onaindiaren eskutik. Debaldekoa eta praktikoa, solan bertan egingo da. Gai zerrenda: sagar, kiwi, madari eta bestelakoak. Plazan.



Imanol Ituiñoren magia ikuskizuna zezeilaren 8an Zeberion

Austarri Kultur Elkarteak antolatuta, zezeilaren 8an 17:30ean magia eta umorea buztartzen dituan ikuskizuna egongo da udaletxeko bigarren solairuan. Imanol Ituiño magoak *Magia parrastan* ikuskizuna eskainiko dau.

Imanol Ituiñoren webgunean dinoanaren arabera, "Zer da, txori bat? Hegazkin bat? Superman? Ez! *Magia parrastan* da! Baina... zer ete da *Magia parrastan*? Horixe da ikuskizun honetan ikusiko dozuena, magia parrastan, eten barik, *a tutiplen!* Kartak, bolatxoak, sokak, agerpenak eta desagerpenak hartuko dabe protagonismoa. Ikuskizun parte-hartzaile, dinamiko eta magikoa. Familiarra, guraso eta seme-alabentzako aproposa!". Iraupena ordubete ingurukoa da.

12:00etan, sanblasak Saldarainen. Mezea eta ondoren barauskarria.

ZEZEILAK 3 BEDIA

Eskia familian. Alto Campoora urtekerea. Gangurenek antolatuta, Udalaren laguntzeagaz.

IGORRE

17:00etan, umeentzako zinea *Mi vecino Totoro*; 19:30ean, *Bohemian Rhapsody*.



LEMOA

10:00etan, urtekerea bizikletan. Arlonagusio kantxatik. Lemoa Txirindulari Elkarteak antolatuta.

ZEZEILAK 4 ARANTZAZU

21:00etan, Arratiako Korua. Agate Deuna.

AREATZA

08:15ean, Arratiako Koruak ibilbidea hasi; 21:30ean, amaitu plazan. Agate Deuna.

ARTEA

11:30ean, eskolako umeak Santa Ageda kantauko dabe; 18:45ean, Santa Ageda abesteko deialdia Kultur Etxean; 21:15ean, Arratiako Korua plazan.

BEDIA

17:00etan, plazan auzoz auzo kantuan joateko; 20:40ean, Arratiako Korua. Agate Deuna.

DIMA

09:00etan, Arratiako Korua; 17:00etan, plazan auzoz auzo kantuan joateko. Agate Deuna.

IGORRE

09:25ean, Arratiako Korua; 15:00etan, parrokiako taldearen urtekerea futbol zelaiko parkinetik. Agate Deuna.

LEMOA

09:45ean, Arratiako Korua eta JB Eguzkitza Meabe Ikastetxea Agate Deunaren koplak kantetan udaletxean.

ZEANURI

08:25ean, Arratiako Korua; 16:30ean, Asterriako korua Asterriatik hasita; 17:00etan, Eguzkiolako korua lokaletik urten; 17:00etan, Undurragoak San Pedroko landan urten. Altzua, Ipiñaburu, Altzusta, Eleizondo, plaza... Agate Deuna.

ZEZEILAK 5 BEDIA

18:00etan, Umeen Irakurle Kluba. Dimanizatzailea Julen Gabiria.

ZEZEILAK 7 IGORRE

17:30ean, Jai Batzordeko batzarra Kultur Etxean.

19:00etan, Korrika batzordearen batzarra Kubulu euskaltegian.

20:00etan, zinekluba, *120 battements par minute* (Robin Campillo, 2017). Lasarte Aretoan.

ZEBERIO

20:00etatik 21:00etara, hilaren 10eko urtekerarako izena emoteko atzen eguna

Austarri Mendi Taldearen lokalean edo austarrimendialdea@gmail.com edo 665 735 054 eta 656 415 597 telefonoetan.

ZEZEILAK 8 LEMOA

10era arte, Ganzabalek antolatuta, mendi eskia eta erraketak. Alto Campoora urtekerea.

ZEBERIO

Zeberioko Gazte Asanbladak antolatuta *Mugiarazten gaituena mugiarazten* jardunaldia. 18:30ean, mahai-ingurua *Zergaitik behar dau Zeberio gune aske bat?* gaiaren inguruan; 21:00etan, bertso afaria. Afarirako apuntetako Herriko dendan edo 688 817 309 telefonoan.



ZEZEILAK 9 IGORRE

Arratiako Gazte Topaketak Kiñu Gaztetxean. 10:00etan, gosaria; 10:30ean, ezagutza jolasak; 11:15ean, eragileen aurkezpenak; 12:00etan, mahai-ingurua; 14:00etan, poteoa; 15:00etan, bazkaria. Osteen Bilbora. 20:00etan, Gazte Topaketako aurkezpen ekitaldia eta Mugalari eta Eskean Kristó taldeen kontzertua Zazpi Katu Gaztetxean.

22:00etan, zinea *Dantza* Lasarte Aretoan.



ZEZEILAK 10 IGORRE

17:00etan, umeentzako zinea *Asterix. Edabe magikoaren sekretua*; 19:30ean, *Dantza* Lasarte Aretoan.

LEMOA

10:00etan, urtekerea bizikletan. Arlonagusio kantxatik. Lemoa Txirindulari Elkarteak antolatuta.

ZEANURI

12:00etan, mezea Santa Ageda ermitan. Koplak mezan eta ondoren barauskarria.

ZEBERIO

08:00etan, Austarri Mendi Taldearen urtekerea. Itziar-Andutz-Lizarreta-Deba (13 kilometro).

ZEZEILAK 12 ZEANURI

17:00etan, sortze tailerra Eguzkiolan.

AKMIKO

Zorrozki-ilo



IRAGARKI LABURRAK

SALDU

BASERRIA SALGAI

Baseri barriztua saltzean da Areatzan. 210 m², 3 solairutan bananduak. 4 logela, komun bi. Terrenoa etxe inguruan. Herritik oso hur. 685 717 504 (Garazi).

DANERIK

TRIKITIXEA EROSTEN DOT

Bigarren eskuko trikitixea erosten dot, Sol tonoa balego hobea. Interesdunak 657 707 725 telefonora deitu.

ETXE BILA

Arratiatik baseri-etxe bila gabizan 4 andra gara (etxerako modukoak). Alkilerrean. Interesdunak 685 707 176 zembakira deitu.

ALOKAIRURAKO LAGUN BILA

Dimako Egiraun auzoan leku eder baten baseri dotore eta polit baten alokairua konpartiduteko pertsonen bila gabiz. 450 euro. Ortuak, tenis zelaia eta bainua hartzeako aukerea. Interesdunak 607 482 499 telefonora deitu.

ETXE BILA

Areatzan pisu/etxe bila gabizana familia gara. Alokatzeko zein erosteko prest. Herrigunetik hur egotea gustauko litxakigu. Interesdunak 653 745 838 telefonora deitu.

Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat. begitu@topagunea.com-era. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:

1 Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera *Zazpi senideko antzezlanerako*.

Hektor Rodriguez (Igorre)
Alaitz Olabari (Igorre)



2 Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera *Dantza* filmarako.

Eñaut Intxaurraga (Zeanuri)
Ainhoa Etxazarra (Bedia)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. BEGITUK 16 urte eta ehundaka lagun.

94 631 73 14 | www.begitu.org | begitu@topagunea.com

umean meda
seim
0-16
Agirre Lehendakaria, 31 • 48140 IGORRE
Tlfnoa: 94 631 92 96 • seimmeda@hotmail.com

Kepa Intxausti
TAXI ZERRITZUA
609421222
IGORRE

Dia %
PEDRO
AUTOZERBITZU
Sabino Arana, 35 48.140 Igorre
Tel. 94 631 15 26

AKITEGIA
GAY & LORA
IGORRE

Igorren
ARKITEKTOA
Aitzol Aurrekoetxea Pujana
Lehendakari Agirre 23, behea
aitzol@coavn.org - 675 705 111

Recreativos Gubi S.L.
Angel Larrea
Zornotza Tlfnoa 649 86 95 36

KIRRU
ILEAPAINDEGIA
ROSANA eta ROBER
SABINO ARANA 38
IGORRE
Tlf. 94 631 92 00

Beer & Edariak s.l.
HEINEKEN SOLARES
Polig. Mendaketa, s/n 48530 LEMOIA, Bizkaia
Tel: 609 482 839 • 699 290 717

ZUZENBIDE
ASEGURUAK: AUTOAK ETXEBIZITZAK
AHOLKULARITZA: LAN ZUZENBIDEA ZERGAK KONTABILITATEA
DENDAK ISTRIPUAK BIZITZA...
Tlf. 94 673 71 41 - 94 673 70 55 - 94 612 11 96 - Faxa 94 612 11 96
Sabino Arana 3, behea - Igorre (Bizkaia)

BIXER
TABERNA
Beko kalea, 2 - Tlf. 94 631 73 65 - VILLARO

Jose Luis Corbacho
pintura lanak
Sabino Arana, 3, 3a • 94-673-70-87
Igorre 48140 Bizkaia • 609-79-40-54

ZEKUTZE
JATEETXEA
Tel: 94 631 52 83
Sabino Arana, 34
48140 IGORRE - Bizkaia
zekutzejateetxea@hotmail.com

Pinturas Anatia
Javi Morato
Tel. 628 443 992

BIZARGINAK
-Ulea era klasiko eta modernoan ebagiten dogu -Bixarra egin eta bukunduten dogu
Tel. 94 607 78 33
Lehendakari Agirre 9, behea IGORRE

OIER ETXEBARRIA

"Eskupelotan jokatuten dauan edozein umeren ametsa profesionaletan debutatzea da eta nik bete dot"

Oier Etxebarria (Urkuzu, 1997) igorretarrak, Aspe enpreseagaz debutau eban urtailaren 6an Eibarko Astelena frontoian, Promozinozko Bigarren Mailako Txapelketan, hain zuzen be. Nahiz eta ikasketak eta eskupelotea buztartutea erraza ez izan, Energia Barriztagarrien Ingeniaritza gradua ikasten dabil Eibarren.

Rakel Aldekoa Diez

Igorretarra izanda, Arratian hasiko zinan pelotan, ezta?

Urkuzukoa naz nahiz eta Arratian bizitarik ez egin. Pelotan zazpi edo zortzi urteagaz hasi nintzan Lemoan. Lehengusuak entrenetan eban eta ni bere entrenamentuak ikusten joaten nintzan. Atzenean neu be hasi nintzan Lemoan. Gaur arte.

Profesionaletan hasi zara aurren Aspen. Zein izan zan zure erreakzioa Aspek kontratua eskaini eutsunean?

Urte birako firmatu dot. Urrietan firmatu neban baina kontratua urtailaren jarri da indarrean, urte birako. Hiru urte daroadaz euren kasu entrenetan. Atzenengo urtean serioago, astean bitan ala hirutan. Eta "jefea" etortzen zan ikusten. Hiru proba egin eusteaz eta hirugarrenean lortu neban. Lehenengoan ez nintzan ibili bape be ondo, bigarrenean, eskutik txarto ibili nintzan. Eta ha atzenengo proba izango zala pentsetan neban. Tolosara joan nintzan eta entrenamentu ona egin eta gero Fernando Vidarte, Aspe enpresako gerentea,

batzartu zan nire aitagaz eta nigaz. Kontratua firmatu gura ebala esan eutsan aitari. Aurten uda txarra pasatu dot, eskutik txarto ibili naz baina urrietan topera paratu nintzan eta gustatu jakon nik egindako entrenamentua.

Zelangoa izan zan debuta? Presinorik izan zenduan? Urduki egon zinan?

Bezperan Zornotzara joan nintzan, lagunengana, eta ez dakit ondo edo txarto egin neban ze mundu guztiak esaten eustan "zu bihar trankil!". Azkenen txerxa heldu nintzan urduki (barrezka). Apur bat kostatu jatan lo egitea baina goizean ondo egon nintzan. Bostetan izan zan partidua, hiruretarako joan nintzan. Takoak ipinitakoan urduki jarri nintzan. Kantxara urten eta mundu guztia builaka. Gainera aurreko partidua txarra izan zan eta horrek be konfiantza maila jeisten dau. Konfiantza galtzea oso erraza da, kostetan dana da konfiantza irabaztea. Nire ustez, ez neban ondo jokatu, nahiz eta jentek baietz esan. Ez neban hutsegite askorik egin eta irabaztea lortu genduan. Sano egun polita izan zan.

Promozinozko Bigarren Mailako Txapelketan zagoz. Zelan sentiduten zara?

Promozino mailan oindino hiru partidu baino ez dodaz jokatu. Gero eta hobeto. Lehenengoagaz ez nintzan oso konforme geratu; bigarrena, hobeto eta hirugarrenean, Mungian, gustatu geratu nintzan egindako partiduagaz. Erritmoa biziagoa da promozino mailan.

Zure bikotekidea Aitor Elordi da. Zelan moldatzen zari alkarregaz?

Ni beragaz oso ondo moldatzen naz, persona ona da, majoa eta horrek be eragin handia dauka jokatzeko orduan. Ondo moldatzen gara eta oso gustatu nago beragaz. Momentu onean dago, uda oso ona egin dau eta oin hiru partidutik bi irabazi doguz. Beraz, nahiko ondo goaz. Gainera, afizionauetan be alkarregaz jokatzen genduan.

Zelan definituko zinake kantxan?

Normalean ez dot hutsegite askorik egiten, baina igoal dago egun bat 12 pelota huts egin neikezkan. Ez dakit, normalean nahiko segurua naz, baina badaukadaz egun txarrak. Garrantzitsuena konfiantza da. Konfiantza maila altua badaukazu trankil zoaz frontoira eta gura barik be ondo egiten dozu pelotan. Konfiantza eskasa bada, bildurragaz zoaz eta orduan, txarto. Galdutea oso erraza da eta gero konfiantza barriro zeureganatzea oso gaxa, landu beharrekoa. Burugorria izan behar da.

Gogorra izan zan profesionale-

tarako pausua? Zeure bizimodu aldaketarik egon da?

Bizitan aldaketarik ez, baina bidea bastante gogorra izan da. Entrenamentuetan eta Eibarrera joaten arrasti osoa emoten da. Ikusten dozunean jentea debutetan zure aurretik eta zu hor zabizela gertzen, orduan pentsetan dozu ez dozula debutauko. Baina, bueno, heldu zan eguna. Suerte behar da bizitza honetan eta nik euki dot.

Zelan buztartzen dozuz ikasketak eta pelotea?

Oin arte, nahiko ondo. Ikasketak amaituten nabil, beraz, hobeto. Niri ez jata gustetan gimnasia joatea ze hurrengo egunean giharretako mina eukiten dot eta ez jata gustetan. Baina pelotan fisikoa be behar da, partidua aguantetako. Ezpabere, heldu zan 12. tantua eta itota zagoz eta aurkaria ez. Horregaitik,

landu egin behar da. Aurten, ikasketak dirala-eta, fisikoa ez dot asko landu. Oin urri lehenengotik Aitor Erauzkineguz entrenetan fisikoa, eta teknikoa Jokin Etxanizeguz (Aspe entrenatzailea) landuten dot. **Nor izan dozu erreferente zure formazio prozesuan?**

Umetan, Abel Barriola, bere jokatze eragaitik. Oso langilea zan eta beti altuera topetan eban, kantxera kubriduten eban, leku guztietatik ondo ibiltzen zan. Gainera, atzelari batek hiru txapel eukitea, berak daukazan moduan... Lau t'erdikoa, buruz buruko eta binakakoa, zeuzergaitik da. Kantxatik kanpo be zelan egiten eban berba alkarizketetan! Nire erreferentea beti izan da bera. Aurrekoan egon ginan berbaldi baten eta bera gugaz egon zan. Kanpoko tratua be oso gertuko iruditu jatan, laguntzeko prest.



ALKIZABAL

ZURE BEHARREI ERANTZUNA

Bolunburu Poligonoa, 19
Amorebieta - Lemoa errep.
48330 LEMOA (Bizkaia)

Tel. 946 31 44 06
Fax. 946 31 20 26
alkizabal@alkizabal.net

www.alkizabal.net

Basoak garbitzeko makineria

ERAIKUNTZA ETA INDUSTRIARAKO SOLUZIOAK

ERAIKUNTZA, LOREZAINZA, EKITALDI ETA INDUSTRIARAKO MAKINERIA KONPONKETA ALOKAIKUA ETA SALMENTA